


# ARGIA

ELIAS AMEZAGA



«KULTUR INDEPENDENTZIA DA  
INDEPENDENTZIEN AMA»

## JONE GOIRIZELAIA

«Gatazka politikoa  
konpontzeko  
gutxieneko baldintzak  
egon badaude»

## GERRA KRIMENAK

Hagako Auzitegiak ez  
du ezer askorik  
aurreratu

## ARGIA SARIAK

Euskarazko  
komunikabideak  
sarien argira bilduta

## LUIS MARI MUJIKA

«Euskaldungo zati  
handiena amorfoa da,  
ez da euskararen  
arazoez ohartu»



ESKURA EZAZU EHE-ren DISKO BERRIA



# AURTENGO TXONDORRAK EMAITZA ONA IZAN DU



KANTU  
BERRIAKI

- BENITO LERTXUNDI
- MIKEL LABOA
- GUK taldea
- TXOMIN eta URBIL ARTOLA
- ANJE DUHALDE
- GARI
- TXAKUN
- DEABRUAK TEILATUETAN
- NEGU GORRIAK
- BALERDI BALERDI
- BIZKAR HEZURRA
- BITTOR AIAPE
- EKKIXU

Durangoko  
Azokan  
eta dendetan salgai

LUDOVIC GAZ. BILBA. MICHALAN. DE BARRA. GAZTEA

m/i

- 6. Politika kronika. MIKEL JAUREGI.
- 8. Jone Goirizelaia: «Ertzaintzak aldatu behar du bere jokamoldea eta politika, ez guk». MIKEL JAUREGI.
- 12. Jugoslaviako gerran, eta Ruandakoan, egindako sarraskiak ari da ikertzen. Hagako Auzitegiak laster plazaratuko du epaia. XABIER ARANBURU.
- 14. Komunikazio sistemak ezezik lanaren erakuntza ere ari da aldatzen elektronika. Bulego finkorik gabeak. XABIER ARANBURU.
- 16. EKBk Hizkuntz Dinamizazioari buruzko ikastarora katalanen esperientzia ekarriko du. Katalanekin dinamizatu. IDOIA TORREGARAI.
- 18. Sarien argira bildu ziren euskarazko komunikabideak. Argiaren Olentzero. MIKEL ELORZA.
- 20. Ur Partzuergoak antolatuta «Kaixo ura» erakusketa ibiltaria Gipuzkoan zehar. Gipuzkoa ur berriz busti. MIKEL URRUZOLA.
- 22. Elias Amezaga: «12.000 idazle dituen herri bat ez da kulturarako ezgai, alderantziz». RITXI LIZARTZA eta ARANTXA ERASUN.
- 28. Kultura kronika. MIKEL ELORZA.
- 31. Euskararen aurrekontuek gora egin dute EAEn, baina itzalekin. J.J PETRIKORENA.
- 34. Luis Mari Mujika: «Euskaldungo zati handiena amorfoa da, ez da euskararen arazoez ohartu». MAITE ARTOLA.
- 37. Argitalpenak. JON ABRIL.
- 40. Telebista-Irratia. ITZIAR CARRASCO
- 44. Aukeran. JOSU ARANBERRI.
- 48. Denborapasa.
- 50. Antzerkiaren gaitzak ez ditu dirulaguntzen aspirinak sendatuko. DAVID BARBERO.




**POLITIKA:** Gasteizko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordean Ezker Abertzalea taldeko bozeramaileetako bat denez, ezinbestean hasi behar solasa presoen gaiarekin. Urratsik eza eta itxaron beharra aitortu ostean, «presoak Euskal Herriratu artean» HBk ez duela amorerik emango adierazi du. /8

**ELIAS AMEZAGA:** Abokatu karreraz, baina idazle bizibidez. Antzezlanekin famatu eta orain euskal idazleen azertzaile nagusia da. Hauen bibliografia aztertu eta hamar atal kaleratu ditu. Euskal idazleez bildutako informazioa oinarri, Euskal Herriaren independentzia kulturala aldarrikatzen du biziki, «independentzia guztien amadela azpimarratu du. /22



**EUSKARAREN AURREKONTUAK:** EAeko datorren urterako aurrekontuak eztabaidagai dira Eusko Legebiltzarrean. Euskararen diruei erreparatu diegu guk, zenbatekoei eta ildo nagusiei. Ondorio nagusien artean bi: gora egin dute hizkuntz politikara zuzendutako diruek; alabaina, hainbat atal eta partidatan itzalguneak dira nagusi. /39



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Diputazioa  
Kultura eta Euskera Departamendua

Argitarapen honen edizioak lizunzailak:


En la edición de esta publicación colabora:




fundazioa  
fundación

## BOST FILOSOFO HANDI

PLATON, DESCARTES, KANT, MARX,  
WITTGENSTEIN




## HILTZEAR DAUDEN KULTURAK



## GIZATERIAREN ERAKETA

Richard E. Leakey



## TUTANKAMON-EN HILOBIAREN AURKIKUNTZA

Howard Carter



## KULTURAREN ENIGMAK

(Behiak, zerriak, gerrak eta sorginak)

Marvin Harris

PENTSAMENDE GARAIBIDEA

## GAIA

(LURRAREN BIZIAZ IKUSKERA  
BERRIA)

James Lovelock



PENTSAMENDE GARAIBIDEA

## ELEMENTU PIKTORIKOEI EKARPENA

(IZPIRITUALTASUNAZ ARTEAN)  
(PUNTUA ETA LERROA PLANOAN)

Vasili Kandinsky



PENTSAMENDE GARAIBIDEA

GAIK TESTUAK

## EUSKARAREN ERABILERAN MURGILTZEN

(EUSKARAZ TREBATZEN \*\*\*)

Joseba Ezeiza / Ainhoa Ezeiza



PENTSAMENDE GARAIBIDEA

GAIK TESTUAK

## TESTUAREN HARIAN

EUSKAL ESALDIAREN  
ESTILISTIKA (\*)

Joseba Ezeiza



# KULTURA ETA EUSKARA EGUBERRITAN ERE

## GAIK ARGITALDARIA

# IRAKUR- LEAK MINTZO

## Batua batuagotzen

DUELA zenbait hilabete, bertze hedabide batean, predikua bota nuen euskal toki izenak euskaldunagotzeko batzuek duten premia harrigarriaz. Orain, batuaz dagoena batuagotzeko —gipuzkeratzeko, azken finean— ARGIA aldizkariak duen nahikeria bitxi horretaz galdetu beharrean nago. Horra, eredutako, niri egin elkarrizketa, azaroaren 3an argitaratu zena hain zuzen. Izenburutik beretik hasita. ARGIAko irakurleen begi minberek ezin «eginen» bat jasan eta itzuli behar: «gingo». Harrapa ezak/n zangotik. Hortik abiatuta, edozein gauza.

Miraz nago. Baikortasun bolada itsu batean nengoen, nonbait, uste bainuen ez ginela alferrik ari. Erran nahi baita, euskara batua dela-eta duela zenbait urte nagusi zen ikusmolde murriztailea —«dut-dun» gipuzkera— mudatzen hasia zela. Ez, ordea. Segitu behar honi piko eta hari ostiko aspergarrian. Batzuk ez baitira deusetaz enteratu. «Egunkaria» ere ez dute irakurtzen. Bederen, gauza bat eskertu behar esku-sartzaileari: arrunt garbi utzi du nongoak nongoei ari zaizkien astekariaren orrietatik. Dudarik ote genuen.

AINGERU EPALTZA  
IRUÑEA

## Tratu diferentea

COSME Delclaux Zubiriaren desagerepenaren ondoren Juan Mari Atutxa eta

Jaime Mayor Oreja bera bere familia, Neguriko oligarkiari lotutakoa, oso aberatsa, bisitatu dute. Bi egun geroago, Mayor Orejak Jose Antonio Ortega Lara karteletako funtzionarioaren emaztea bisitatu du, 300 eta piko egun bahituta dagoenaren emaztea hain zuzen ere. Oso gaizki geratuko zen Negurikoak bisitatuz karteletako funtzionarioaren emaztea ez bisitatzea, berandu joan bada ere. Baina biek tratu berbera merezi dutela inpresioa eman nahi izan baldin badute ere, askoz gehiago interesatzen zaie Negurikoa, berehalako bisitan ikusi ahal izan den bezalaxe.

Izpiritu filosofiko batentzat kasu honetan berdintasunaren problema planteatuko litzateke, eta ez da egia lotutako problema edo arazoa, egiazki pertsonak ez baikara berdinak eta ez berdintasunen perzeptzioak tratuan ere gero ispilatzen baitira. Beraz, ez da egia lotutako problema, baizik eta moralari eta politikari lotutakoa. Izan ere, morala eta politika jardueraz eta konportamenduaz diharduten jakintzak baitira.

Beraz, ez da inondik ere zuzena esatea denok berdinak garenik, ezta sikiera klase gabeko gizarte batean ere; zuzenagoa litzateke esatea gure jardueraz guztiakin berdina izan behar dela, moralari bait dagokio problema edo arazo hau.

Niretzat oso zabalduetako errorea da aipatu dudana hau.

ROMAN GARMENDIA  
SORALUZE (GIPUZKOA)

## HIRUKO

## TXIKIAN

### Zerbitzu ala ziri?

**B**izi kalitatea sortzeko oinarrizkoa den hori, elkarren arteko zerbitzu grina alegia, salerosketa legez sistematizatu egiten ari da. Eta konbentzitu nahi gaituzte, giza harremanetan ere komertzial sistemen erreferentziak beharrezkoak ditugula gure arteko harremanak kalitatezkoak izan daitezen. Orain hogeita hamar bat urte Donostiako ESTE hartan egin kurtso baten dokumentazioan aurkitu dut orain berritzaile aurkezten diguten hau. Manual haietan industriak barnetik kudeatzeko metodotzat erakusten zigutena, orain sistematizatu eta globalizatu aurkezten digute: funtsean, hornitzaile-bezero gara. Beraz, eta gure arteko harremanek funtziona dezaten, bakoitzak bere interesak aurretik eta argi mahainaratu behar ditu inork inor tronparazi ez dezan. Adibidez, jatetxe bateko sukaldetan, taldean entsalada bat egitean jaleaz aparte zenbat bezero dago? Zenbat hornitzaile? Egokiena, gauzak bere lekuan jartzeko kontsultore enpresa bati horren sistematizazioa enkargatzea da. Baina ez ahantzi entsalada maitasun handiz egitea. Aurki, hurbil azukrea mesedez!! Zein baldintzatan?

JOXE MARI OSTOLAZA

# ARGIA

**JABEA:** ZERUKO ARGIA, S.A.L.

**LEHENDAKARIA:** Joxe Mari Irazusta.

**ZUZENDARIA:** Pello Zubiria.

**Kontseilu Editorialeko**

**Arduraduna:** Baleren Bakaikoa.

**Erredakzioa:** Xabier Aranburu, Arantxa Erasun, Mikel Jauregi, Juan Joxe Petrikorena, Arritxu Zelaia.

**Maketazioa:** Berdaitz Goia.

**Dokumentazioa:** Ernesto Ibarluzea, Ainhoa Gerra.

**Administrazioa:** Jasone Larrarte.

**Harpidetzak:** Olatz Korta, Elena Guinea, Maider Amenabar.

**Hedapena:** Ixabel Bereziartua.

**Publizitatea:** Iñigo Txintxurreta, Nekane Zubeldia, Itziar Diaz de Durana, Miren Larrarte.

**HELBIDEAK**

**GIPUZKOA:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia. 20160 Lasarte-Oria.

Tlf: 37 15 45. Faxa: 37 34 03/36 10 48.

**BIZKAIA:** Zabalburu 2, 1. ezkerria. 48003 Bilbo. Tlf: 410 34 34. Faxa: 410 37 15.

**IPARRALDEA:** Xalbardin baita. 64122

Urruña. Tlf: 59 47 60 00. Faxa: 59 47 60 01.

**NAFARROA:** Iratxeko Monastegia 70, 3. ezkerria. 31011 Iruñea.

Tlf: 17 80 78. Faxa: 17 80 77.

**LEGE GORDAILUA:** NA 80-1963.

**ISSN:** 0213-909X.

**BATZORDE PAREKIDEA:** 72562 E.

**INPRIMATEGIA:** Antza, S.A.L.

**INFORMATIKA:** A.S.P., S.A.L.

# Pinotxoren errealitatea

**ESPAINIAKO** salduena den egunkariaren erreportaia lehenik, ertzainek atxilotutako bost gazteak ondoren, 50 bat gaztek Jose Antonio Rekondo alkatearen bulegora, 'gotorlekura' sartu nahi izan zuten —auskalo zertarako— jarraian, Iker Amiama eta Jon Benito gazteei egin omenaldia eta istilu gogorrek gazte kaputxadun eta Ertzaintzaren artean igande iluntzean... Aste 'emankorra' Gipuzkoako Hernanin.

Baina ez, ez da Euskal Herriko Belfast. Hala azaldu nahi izan zuten, baina, soilik egun batez Hernani 'ezagutzeko' aukera izan zuten kazetari madrildarrek. «Beldurra» eta «dixosozko begiradak» aipatzen zituzten; Ezker Abertzalekoak ez direnek Kardaberaz kalea ez dutela gurutzatzen azpimarratzen; istiluen ondorioz kanpotarrek ihes egin dutela eta gaueko bizitzarik ez dagoela nabarmentzen —astebururen batean gauez Hernanin izan den orok badaki eromena izan ohi dela bertan, batik bat Kardaberaz—. Ez dute benetako Hernani ikusi, beraiek nahi zutena baino.

**HERNANIKO** kaleetan egun bizi dena Euskal Herriko beste herri askotan gertatzen denaren ispilu baino ez da. Areagotua agian, baina ez diferentea. Non ez dira gertatzen kasik astebururo sabotaiak? Non ez ertzainen eta kaputxadunen arteko enfrentamenduak? Beraz, arazoa ez

dagokio Hernaniri. Askozaz zabalagoa da. Eta zera da okerrera: hau guztia eguneroko ogi bilakatu zaigula, inor ez dela asaldatzen eta, are gutxiago, irtenbidea ematen saiatzen. Bideozaintzak ez du ezer konponduko, ezta ertzainek ere «hiruzpalau kokoteko» emateak. Errepresioak ez du ezer ekarriko. Kale-borroka ekarri duena konpontzen ez den artean beti izango da txanoa jarri eta harrika jarduteko prest dagoen gazterik.

**BI** egunkarik agiri bana plazaratu digute iragan asteburuan, biak ere Ezker Abertzaleari lotutakoak. Lehenengoan, ustez ETAk eta KASEk eskuz esku uda partean osatutakoa, «gerri politikoa» proposatzen da Ezker Abertzalearen baitan etapa berri bati ekiteko. Hala, EAJrekiko distentsioa, erakundeetako partehartzea berriro planteatzea, tentsioa murriztea, ekintza armatu selektiboak gauzatzea, EAJ, EA eta IU-EBrekin mikropolitikaz eztabaidatzeko aukera... mahairatzen ditu. Bigarren



agirian, berriz, ustez Ezker Abertzaleko zenbait kide kritikok osatutako Sarobe taldeak gogor kritikatu du ETAREN, KASEN eta HBREN gaur egungo ildo eta jardura politikoa. Hauek egungo «estrategia suntsizailea» alboratu ezean, mugimendu berri bat osatzeko asmoa agertu du.

Honen guztiaren aurrean isilik. Egia ala kazetaritzaren beste fikzio bat? Ezin jakin. Baina Hernaniri buruzko erreportaia irakurri eta ogibide petral honetan astakeriak zein lasai bota daitezkeen ohartzearekin batera sortu zitzaidan sentsazioa ez zait joan oraindik.


**MIKEL JAUREGI**

## MALGUTASUN ARIKETAK

**GERRI** politikoa berria erabili behar omen du Ezker Abertzaleak, gure arteko egunkari handienak KASEn papertzat argitaratu duen informazioaren arabera. ETA eta KASEn arteko joan den udako erabaki bat omen da. Egia ote da? HBko hautetsien azken hilabeteotako jokabideak —Legebiltzarrean presoen eta euskararen gaietan erakutsitakoak— hala baieztan duela dirudi. Oro har, bizitzan gauza ona da malgutasuna. Erdaraz «tener cintura» esateak malgutasuna adierazten du; ez dago gerri zahar, berri edo

bestelakorik. Malgutasuna versus zurruntasuna. Biek dituzte beren abantail eta arriskuak. Malguak, gehiegi malkurtzera iritsi daitekeelako. Gogorrek, ezin mugituaren poderioz hautsi egin daitekeelako. Euskal politikagintzari, orokorrean, ez zaio «gerria edukitzea» gaizki etorriko. Ezker Abertzaleari dagokionez, bi galdera aidean. Bata, taktika batean joko ona eman duten jokalariek balioko ote duten berrirako. Bia, auzokoarekin gerri berriz jokatu nahi duenak etxean hori bera aplikatuko ote duen.

**PELLO ZUBIRIA**



## ZER ARI DA GERTATZEN HERNANIN?

### Hitza herriari

GALDERA horri erantzutea ez da erraza. Herriko egoeraren zio bakarra kale-borrokan dela esatea errazegia litzateke. Arazoa konplexua dela esatea topikoetan erortzea. Komunikabideetatik Hernaniko herriak jasotzen ditudanean, ez dut herria ezagutzen. Badirudi betaurreko ilunen bidez egindako mezuak direla. Kanpoko edonork pentsa lezake «Euskal Herriko Belfasten» bizi garela.

Nortasun handiko herria da, komunitate sare aberatskeoa. Nolakoak garen jakinik, ez dut uste hernaniar izateagatik harro sentitzen ez den hernaniarrik dagoenik. Krisi ekonomikoak gogor zigortu du herria, tailer eta lantegiak itxiz. Gainera, sufritzen jarraitzen du errepresioa eta guda zikina dela-eta (hilketak, torturak, espetxea, jipoiak...).

Gure Udala ez da hauteskundeen emaitzen adierazle, eta hori herriak ez du ulertu. EA-PSOE-EAJ-PPk Gobernuaren gehiengoa osatzen dute, eta horiek batzen dituen gauza bakarra da HBren aurka egotea. Ondorioz, badirudi mutur batean udal ofiziala dagoela eta bestean udal paraleloa. Ondorioa: hernaniarrok udalik gabe gaude.

Honek gatazka dakar. Batetik, «Jomeini» besaulkia defenditzen, bere interesak herriarenak bailiran; bestetik, «boltxebikeak» Neguko Jauregian sartzeko prestatzen.

Baina norbaitek arrazoa baldin badu, hori gazteria da. Haserre daude beren eskakizunei erantzuten ez dien hezkuntzan murgildu dituztelako, lan-munduan sartzeko esperantzarik ez dutelako, beren eskakizunei Udalak muzin egiten dielako, oneoro nortasun agiria eskatzen dietelako... Gainera, aisialdian kanuto lasaigarri hori erretzeagatik ere «drogazaletzat» hartzen dituzte. Baina, gazteetatik at, bada egoera honekin nazkatutik dagoenik ere. Gainera ezin ahantzi

Hernani beste errealitate kultural, sozial eta politiko batean murgildurik dagoela, hots, Euskal Herrian, eta honek gatazka bat duela Estatu espainolarekin eta frantsesarekin.

Herriko arazoaren benetako konponbidea aldaketa sakonetik soilik etorriko da. Epe motzera lan eginez gero, pertsonen eta herriaren eskubideek errespetua behar dute. Baina eskubideok egunero jarri behar ditugu praktikan eta jartzen utzi behar dizkigute.

Intenbidea bilatzeko herriak badu ahotsa eta oraindik entzuteke dago. Hernaniz asko esan eta idatzi da, baina oraindik Hernanik ez du hitz egin. Alderdiek eta komunikabideek herri honen errealitatea manipulatzan duten artean, Hernanik ez du irtenbiderik izango. Topikoek eta manipulazioek herri honi kalte besterik ez diote egiten.

Arazoaren irtenbide bakarra herriaren ahotsa entzutea da, eta «saspolitikeria» alboratzea. Joko gehienetan txandak egoten dira, eta hemen txanda beti berdinek daukate. Ez al da garaia herriari txanda uzteko?

**Ramon Jauregi** EAEko PSE-EEko idazkari nagusiak ondokoa adierazi du, eta liskarra piztu: «*Auto-determinazioa ezagutzen ez dela-eta EAJk eta EAk defizit demokratikoaz hitz egiten dutenean, batzuek autobusak erretzeko aitzakiak topatzen dituzte*». **Xabier Arzalluz** EAJren EBBko lehendakaria ez da isilik geratu, eta bere ustez bakegintzan aurrera egiteko irtenbiderik topatzen ez dutenen aurka egin du Sukarrietan: «*Guztia da ETA, ETA. Eta besarkadak Arafati, Fidel Castrori eta Ortigari. Zein izan da Arafat baino terroristagoa? Ala ez dakigu zein izan zen Castro, nola iritsi zen boterera eta zer egin duen bere kartzeletan? A! Baina horiek terrorista aurrerakoiak dira. Orduan, ETArek kasuan, zer da atsegin ez dutena? Tiroa? Edota belburua?». Era berean, **Carlos Garaikoetxeak** ere Jauregiren kontra egin du: «*Ez du hirukoa uztearen mehatxurik beteko, ezta ura irakiten dela ere*».*


**Patxi Zabaletaren** iritziz, «*Sarobe ilunkeriatan ibiltzen da, aurrpegirik eman gabe. Gainera,*

*bidaltzen dituzten agirietan % 99,9 kritika da eta konponbiderako proposamenen portzentaia ez da nabikoa*».

Ostera, **Jose Manuel Martiarena** EAEko Segurtasun sailburuordeak airtortu egin du denbora faltagatik ez zuela abisatu Atutxa Delclauxen bahiketaz: «*Ez nuen sailburua informa-*

*tzeko astirik izan, eta gainera, ez nuen bilera moztu nahi*».

Azkenik, **Joxe Mari Olarra** HBko kideak presoez jardun du: «*PP Lemoiz berri bat planteatu asmoz dabil. Baina Aznarrek jakin bebarko luke Euskal Herriratzea lortuko dugula. Beraz, zertarako sufrimendu gehiago?*».



Jone Goirizelaia, Herri Batasunako legebiltzarkidea

# «Ertzaintzak aldatu behar du bere jokamoldea eta politika, ez guk»

**O**rain 40 urte Bilbon jaio arren, txikitandik Mungian bizi da. Dantzaria afizioz, abokatu ofizioz. Emakumearen askatasun mugimenduari aski lotutakoa. Mahai Nazionaleko kide izana, legebiltzarkide eta Giza Eskubideen Batzordeko partaide dugu.

**Gasteizko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordean akordio garrantzitsua lortu duzue euskal presoen sakabana-  
ketarekin amaitzeko. Akordioa bai, baina aurrerapausorik ez da ikusten. Zer espero dezakegu epe motzera?**

Akordioa egon badago. Baina akordioa baino garrantzitsuagoa da onartutako puntu guztiak praktikan jartzea. Baina zerbait egiten hasiz gero, arazo batekin egiten dugu topo: Barne Ministerioaren jarrera itxiarekin. Gainera, gauza guztiak aurrera eramateko laguntzarik ez daukagu. Beraz, itxarotea da daukagun aukera bakarra. Egoerari irtenbiderik ematen ez bazaio, akordioan aipatzen den bezala, Europara joko dugu.

**Ponentziaren sorrera nola baloratzen duzu?**

Aspaldidanik aipatu izan du HBk batzorde horretan bertan presoen egoera zer nolakoa den, eta inoiz ez dute erantzunik eman izan. Baina orain gauzak aldatu egin dira: presoen gaia kaletik erakundeetara eramateko beharra ikusi dute. Eta, batik bat, kale-mugimenduak, Senideak-ek eta presoek beraiek jorratu duten borrokaren ondorioz etorri da aldaketa.

Akordioaren filosofia positibotzat jotzen dugu. Izan ere, testu horretan presoek giza eskubideak ez direla errespetatzen eta sakabana-keta legez kanpokoa dela jasotzen baita.

**Zer geiago egin daiteke erakunde mailan Madril presionatzeko?**

Presoen borroka oso garrantzitsua da uneotan. Baina presoekin batera Euskal Herriko gizarteak aurrera



«Gazteek ikusi dute gatazka konpontzeko kale-borrokarari ekitea beste biderik ez dagoela». (Argazkia: Garikoitz Garaialde).

daraman borroka ere garrantzitsua da oso, kalean barneraturik baitago presoek egoera zein latza den. Bestalde, akordioaren tes-

tuan aipatzen denez, Espainiako Gobernuak ez badu onartzen Gasteizko Legebiltzarrean hitzartutakoa Europara jo beharra dago. Es-





«Presoen gaian, Madrilek ez dauka erritmo batean edo bestean dantzan egiteko gogorik». (A.: G. G.).

trasburgoko Parlamentuan erabaki bat hartu zen, non sakabanaketa legez kanpoko delá onartu zuten. Beraz, presioa egiteko beste bide bat dugu Europakoa. **Eta zer adierazten dizu popularrek eta alderdi sozialistak akordio horren aurrean hartu duten jarrerak?**

Hauen politika ez da aldatu: errepresioa. Gizarteak eskatzen duenari muzin egin diote, eta interes politiko zehatz baten atzetik abiatu dira.

**Giza Eskubideen Batzordean bitzartu duzuen akordio hori ez al da gerturatze plangintza soilean geratu?**

Akordioan aipatzen da presoen etxetik ahalik eta gertuen egon behar dutela; eta ahalik eta gertuen Euskal

Herrian da. Gure asmoa, eta gizartearena berarena, euskal presoak Euskal Herrira ekartzea da.

**Baina HBk presoen Euskal Herriratzeari defendituz jarraitzen badu akordioa bautsi egin daiteke, beste hiru alderdiak ez baitira horren aldeko. Aurrikusirik al daukatzue aukera hori?**

Akordioak eskatzen du, lehenik eta behin, Kanariar Irletan eta Baleareetan dauden presoak penintsulara ekartzea, gaixorik daudenak libre uztea eta baldintzapeko askatasunarekin aske behar luketenak askatzea. Ordea, hori gutzia ez da bete. Hauek bete artean alferrik da gerora aurrera nola egin dezakegun pentsatzen hastea; betetakoan bai, or-

duan aztertu beharko dugu zein bide jarraitu. Baina inork ez dezala ahantzi euskal presoak Euskal Herriratzeari dela gure helburua, ez diogula horri uko egingo.

**Madrildik denbora eskatu izan dute, eta erritmo ezberdintasuna arrazoitzat jarri.**

Aitzakia da denborarena. Beraiek ez daukate erritmo batean edo bestean dantzan jarduteko gogorik. Horrek agerian uzten du ez dagoela borondate politikorik.

**Cosme Delclauxen babaketak presoen egoeraren konponketa zailtzen eta oztopatzen duela azpimarratu duen politikaririk ere izan da...**

Gatazka politikoaren adierazgarri da Delclauxen bahiketa. Baina era berean, azken egunotako atxiloketak, torturak, kartzeletako egoera bera... ere gatazka politiko horren adierazgarri dira.

Bahiketak ez du zerikusirik presoen egoera konpon-

## HAMARREKOA

### KARMELO LANDA

«Bere herriarekin konprometitutako lagun handia; Karmelo da guayena»

### JOSE A. RUBALKABA

«Inoiz ezertxorekin ere konprometitzeko gai ez den pertsona»

### ROSA DIEZ

«Politikagintzako hortera»

### JAVIER MADRAZO

«Bere ezintasuna ezkutatzeko gaia»

### JUAN A. MADARIAGA

«Egiazkoa; gizatiarra; aberzalea»

### LEOPOLDO BARREDA

«Demokratizazio mozorrotutako Cristo Rey taldeko gerrilari ohia»

### JASONE IRARRAGORRI

«Politikagintzan batzuetan ez dakizu badoan edo badatorren»

### RAMON JAUREGI

«Kontzientzia txarra duen pertsona azkarra»

### JUAN MARI ATUTXA

«Aluzinatua»

### DANIEL ARRANZ

«GAL, Azpiegitura...»

«Gizarteak eskatzen duenari muzin egin diote PPK eta PSOEek, eta interes politiko zehatz baten atzetik abiatu dira»

## Lagun gisa gomendagarria


OROREN gainera, Jone emakume aktiboa da. Une batean bizpahiru lekutan egotera behartzen duen lan-programa batean ikustea ez da harrizkoa. Ez dela posible? Teorian ez; baina bere filosofiaren arabera, beti azalduko da zerbait edo norbait konpromezu guztiak betetzea ahalbidetuko diona. Horretarako pertsona askoren laguntza beharko du, berari hain konplexua egiten zaion denboraren makineria koipeztuko diotenak. Eta inorez dadiila harritu bere denborak, benetakoarekin alderatuta, 20 minutuko atzerapenez funtzionatzen badu; hori errealitatearen eta besteen arazoa da, ez berea.

Bere ideietan irmoa dela eta argitasunaren doia duela ohartuko dira agerraldi publikoetatik soilik ezagutzen dutenak. Baina ez pentsa hori sinpletasunaren adibide denik. Agerraldira iristeko, aurretik talde-lana jorratuko du, eta ja-

sotako iritzietatik diskurtsoari edukia emango dioten eskema eta ondorioak aterako ditu. Bere lanean lagunduko dionari ez dio sekula aterik itxiko.

Zuzenbidetik, berriz, izugarri atsegin du ahozko epaiketako «gorputzez gorputzeko borroka» zuzenbide penalean. Distantzia horretan erraztasunez mugitzen da. Dantzari aurrekariak gogoratuz, egoera konplexu-eraketatik freskotasunez irtekeko gai da. Baina goseak jota dagoenean, oldarkoragoa da. Dantzarako duen gaitasun eza-guna kantura ere hedatzen du berak, baina honi buruz iritzia ez dira aho-batekoak; alegia, hobe dela dantzan ikustea.

Bere aurrean dela, soilik auzartenok gara kontu feministei buruz txantxak egiteko gai. Bere jendea-zaletasunak eta presentzia irribarretsua, bere ideia politikoak zalantzan jarrazten saiatu diren hainbat nahastu ditu; hauek, baina, zin-



**Kepa Landa  
Abokatu**

tzurrera egindako eraso batekin egin izan dute topo.

Norbait bere beharra badu, dei egin diezaiola. Aurrena baietz esango dio, eta gero konpromezu berri hori nola bete pentsatzen hasiko da. Izan ere, akatsen bat baldin badu, hori «ez» esaten ez jakitea baita.

Beste gauza bat nabarmendu behar Joneren nortasunean: umorea. Berarekin bizi direnekin batera, ez da harrizkoa bizitzako edozein ekintza edo eremuren atzean ezkatzen diren gauza txikiez barre egiten ikustea. Baita bere buruaz ere.

baterako, ETak egin zuen eskaintza. Alternatiba Demokratikoan autodeterminazio eskubideari buruz hitz egiteko prest agertu zen ETA, eta horren arabera pauso batzuk emateko prest zegoela adierazi. Oraindik ez du erantzunik jaso.

Gainera, Alternatiba Demokratikoaren bideoa zela eta ez zela Jon Idigoras kartzelaratu egin zuten, eta HBren Mahai Nazionaleko kideen aurka espedienteak zabalik daude oraindik. Aurrerapausorik, ordea, batera ez. Badakite arazoa konpondu daitekeela, baina ez daukate borondate politikorik. Gutxieneko baldintza horiek egonik, badago biderik gatazka politikoa konpontzeko.

### **Egiotzu eskaera bat EAJri ildo horretan.**

Estatu espainoletik urrundu eta euskaldun eta abertzale gisa pentsatzen hasteko eskatuko nioke. Eta Ezker Abertzaletik egiten diren proposamenak kontuan izan ditzala, egiten diren proposamenak benetako bake-proposamenak baitira. **Eta Madrili zer?**

Badakite bake-proposamena egon badagoela, eta posible dela bakea lortzea. Dituzen Polizia bidezko neurriak baztertu eta proposa-

tzarekin. Posible da bata eta bestea konpontzea. Guk beti esan izan dugu bidea ez dela errepresioa, baizik eta elkarriketak ekarriko duela bakegintzarako bidea.

**Ortega Larak 300 egunetik gora; Delclauxek asetebe pasatxo. Eraginik**

**izan al dezake bi pertsona babiturik egoteak espetxeetan presoek jasan dezaketan tratuan?**

Egoera ez da batera aldatu: sakabanaketa, isolamendua, tartu txarrak, laguneri bisitak... Hori guztia lehen hor zegoen, eta orain ere hor da.

**Bakegintzan aurrera egiteko zein izan daitezke klabe nagusiak epe motz edo ertainera?**

Pauso garrantzitsua da preso-erregimenaren gaia konpontzea, baina honekin batera beste urrats batzuk ere eman behar dira. Hor dago, esate

Xabier Lizardi jaio zeneko  
EHUN URTE  
OSPAKIZUN EKITALDIAK  
Donostia, Tolosa eta Zarautz



# Bide berriak... bide guztiak.

*Xabier Lizardi*  
1896-1973



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Kultura eta Euskara Departamentua

menak lantzen hasteko eskatuko nioke.

### **Eta HBk zer jarriko luke mahai gainean?**

Mintzatzen hasteko jarriak ditu zenbait gauza eta gai mahai gainean: autodeterminazio eskubidea, lurralde batasuna, euskara... Badau-de gai zehatz eta posible batzuk hitz egiteko modua ematen dutenak.

### **Kale-isitiluak izugarri areagotu dira azken urte bonetan, eta Ezker Abertzaleak azkenaldion jasan dituen kritikarik gogorrenak ildo borretatik etorri dira...**

Kale-borroka ez da berez, hala moduz sortu, arrazoi bat dago atzean: gatazka politikoa. Horren arrazoa eta muina zein den ikusi egin behar da. Eta gazteek ikusi dute gatazka politikoa hori konpontzeko kale-borroka-



**«Estatu espainolek urrundu eta euskaldun eta abertzale gisa pentsatzen hasteko eskatuko nioke EAJri». (Arg.: G. Garaialde).**

ri ekitea beste bide eta erremediorik ez dagoela. Polizia bidezko neurriekin ez dute kale-borroka konponduko; gatazka politikoa gertatzen den bezala, neurri politikoak jarri behar dira mar-txan hori konpondu ahal izateko.

### **Juan Mari Atutxak ARGIari esana: «Ertzaintza ez dabil inoren atzetik bere ideologiarengatik».**

Hori sekulako gezurra da. Nik eurek egindako espediente judizial bat daukat eta bertan, polizi-aurrekarietan, zera jartzen du: giro abertza-

leetan askotan ikusi eta atxilotutakoa. Hor daukazu erantzuna.

### **Ezker Abertzalearen eta Ertzaintzaren artean dagoen zauri sakona senda al daiteke?**

Galdetu behar dena da ezinikusia Ertzaintzaren eta Ezker Abertzalearen artekoa den, edota Ertzaintzaren eta herriaren artekoa. Izan ere, langileek manifestazioa egiten dutenean hor daude, emakumeek manifestazioa egiten dutenean han dira... Mobilizatzen den edonor jipoitzen dute.

Estatu espainolarekin lanean dihardu Ertzaintzak. Ez da Polizia integrala, eta gainera, Ezker Abertzalearen aurka dihardu. Beraiek aldatu behar dute euren politika eta jokamoldea, ez guk.

**MIKEL JAUREGI**



Industrialdea, 4  
NAFARROAKO LEITZA  
TEL.: (948) 51 03 11  
FAXA: (948) 51 05 29



**EUSKAL HERRIAN EGITEN DEN KALITATE ONENA  
DUEN SUKALDE HALTZARIA DA**

**KALITATEA OSOTASUNEN EDUKIAN NABARMENTZEN  
DU EUSKAL -K BERE PRODUKTUETAN**

**KALITATEA BADA ZURE "MARKA"**

**EUSKAL -tu ZURE ERRONKA SUKALDEAN**



Jugoslaviako gerran, eta Ruandakoan, egindako sarraskiak ari da ikertzen

# Hagako Auzitegiak laster plazaratuko du epaia

**J**ugoslaviako gerran eta Ruandakoan egindako sarraskiak epaitzarren sortu zen Hagako Nazioarteko Auzitegi Penala; horren berri ematen izan da Donostian Rod Dixon hegoafrikarra.

HAGA ez da Nuremberg. Holandako hirian maiatza ezkerotik egiten ari den epaiketak —Jugoslavia zeneko gerra krimenak direla eta— ez du inor urkamen-dirako bidean jarriko. Nurembergeko prozesuaren (1945-46) epaiak, aldiz, Alemaniako nazien buru izandako hainbat lagun hiltzeko agindu zuen, 'Gizate-



**Hagako Auzitegiko fiskaltzako kidea da Rodney Dixon hegoafrikarra, Donostian izan berria. (Arg: G. Garaialde).**

riaren Aurkako Krimenak' burutzeagatik. Jugoslaviako gerran ere sobera izan da

basakeriarik, baina naziak zigortzea baino askoz zailagoa izango da Ratko Mla-

dic, Radovan Karadzic, Dusan Tadic eta gainerakoak giltzapean sartzea.

Hagako Nazioarteko Auzitegi Penalari (HNAP) egokitu zaio Balkanetako azken gerrako krimenak epaitzea, baita Ruandakoak ere. Duela hiru urte pasatsu, 1993ko maiatzaren 25ean sortu zuten auzitegia, Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluaren aginduz, 827. ebazpena medio. Lehenbiziko aldia izan da, Nuremberg eta Tokioko prozesuen ondoren, antzeko auzitegi eta epaiketarik eratu dena. Auziperatuta 70 lagun dauzka HNAPk Jugoslaviako bortizkeriengatik, baina hamar besterik ez daude atxilotuta. Eta orain artean emaitza sonatu bakarra lortu du Hagako Auzitegiak: akusatu batek bere burua erruduntzat aitortzea.

## **Aitorpen bakarra**

DRAZEN Erdemovic kroaziarrak, Serbiako Armadan arituak, azaroaren 19an azaldu zuen Hagan 1995eko uztailaren 13an Srebrenican

## ■ Lehenbiziko aldia izan da, Nuremberg eta Tokioko prozesuen ondoren, antzeko auzitegi eta epaiketarik eratu dena

serbiarrek egindako sarraskiaren berri. Hamazazpi eta 70 urte bitarteko 70 bat lagun —zibilak denak— hil zituen Erdemovicek egun hartan. «Beste erremediorik ez nuen izan; hiltzen ez banituen neu bilko nindutela esan zidaten», zioen Erdemovicek. Triskantza hartan, 93ko uztailearen 10etik 14ra, 7.000 zibil bosniar fusilatu zituzten serbiarrek.

Gogo gutxiz edo gogoaren kontra aritutakoez gain izan zen Jugoslaviako gerran genozidioan burubelari eta kementsu aritu zenik. Horiek espetxeratzea neketsuagoa zaio HNAPri Erdemovicen aitortza lortzea baino. Nazio Batuen Erakundeak ez baitu polizia berezirik gerra kriminalak atxilotzeko. Rodney Dixon, Hagako Auzitegiko fiskaltzako kidea Donostian izan berria da, SOS-Balkanes erakundearen eskutik. Dixonek dioenez, NNBBen *Segurtasun Batzordeak gerra-guneetara bidaltzen dituen tropen esku dago kriminalak atxilotzea. Eta hori da gure arazo nagusietakoa. Gobernu bakoitzaren irizpidearen arabera ari garela, alegia, ez agintaritzak bakar baten baitan*.

Aitortu zuen Dixonek potentzia handien indarrak izan ohi direla eraginkorrenak horrelakoetan. «*Nazio Batuen Erakundea ez da berezko instituzioa, herrialde anitzek osatua baizik. Beraz, ez du super-potentziek duten autonomia. Aitortu beharrean naiz potentzia horien esku dagoela*

*batik bat Hagako Auzitegiaren funtzionamendua eta gerra kriminalen auziperatzea*». Mladic, Karadzic, Milosevic eta beste zenbait lagun prozesatzeko erabakia, honenbestez, Hagan baino gehiago Washingtonen legoke, Dixonek Donostian adierazi zuenez.

### Borondaterik ez

ETA Washingtongo aginteari (ezta gainerako potentziei ere) ez zaio sumatzen aparteko borondaterik Jugoslaviako genozidioaren erantzuleak zigortzeko, SOS-Balkanesen iritziz. «*IFOR edo NNBBen tropek ez dute gerra kriminalak atxilotzeko batere gogorik erakutsi. Libre dira sarraskien erantzule handienak, eta gebienera ere bakan batzuk beren karguetatik kentzea besterik ez da lortu. Horien orde z jarri dituztenak, berriz, aurrekoen antzekoak dira. Genozidio mehatxua ez da desagertu Balkanetan*», diote SOS-Balkanes erakundeak.

Daytongo Hitzarmenen aginduak hutsaren parekoak direla; Mendebaldeko potentziek, IFORek eta Carl Bildtek ez dutela deusik egiten; Hagako Auzitegiak ez duela apenas sinesgarritasunik eta interes estrategiko-politikoek ezabatu egin nahi dutela epaiketa, horiek dira Dixon eta SOS-Balkanesen beldurrak. Eta konponbidea Nazioarteko Justizia Penal Iraunkor proiektua gauzatzea omen litzateke.

**XABIER ARANBURU**

## MUNDUA EZ DA BIRIBILA

### Idazkari deserosoa Washingtonentzat

**B**ILL Clintonek 1992an lehendakaritza eskuratu zuenean Estatu Batuak munduko polizia zirenen mitoa hautsi egin behar zela aldarrikatu zuen, eta mundu osoaren inplikazioa eskatu ere mundu osoko arazoan aurrean.

Oso urrun geratu da diskurtso hori, lau urteotan EEBBtako Gobernuak eraman duen politikan, eta hurrengo lauetan eramango duenean ere ez da ageri aldaketarik. Washingtonek NBE bere mendera edukiko zuen erakundea izatea nahi zuen: Washingtonek proposatu-Nazio Batuek erabaki-Washingtonek aurrera eraman. Hori zen aldamean bloke sozialistari eta lerrokatu gabeko herrialdeen presiorik ez zuten EEBBen formula munduko krisi guztiak konpontzeko.

**BAINA** Nazio Batuetan formula horrekin ados ez zegoen idazkari nagusia zeukan Washingtonek. Butros Galirentzat, Mendebalde-Ekialdea tentsioak gainditu eta gero, NBEk bere erantzukizunak erabat eraman behar zituen aurrera eta munduan zehar hedatu bakearen alde. Horretarako bi informe nagusi aurkeztu zituen, 'Bakerako Agenda' eta 'Garapenerako Agenda'. Galiren proposamenik berriena nazioarteko erakundearentzako eskuhartze azkarreko indarrak sortzea izan zen, gatazkak piztu bezain laster eskuhartzeko, eta prebentziozko politika bultzatu nahi izan du gatazkak aurreikusi eta piztu aurretik galarazteko.

**GESTIO** txarra, eta erakundea bere mesedetara erabiltzea leporatu dio Galiri NBErekin zorrik handiena duen herrialdeak. Inolako funtsik ez duten salaketak, besteak beste, gestionatzaile ona izan baita Gali. Nazioarteko erakundea bereganatzen saiatu dira EEBBak eta horren aurrean ustekabeko adiskideak lortu ditu idazkari nagusiak, eta ez dira herri txikiak izan. Banan banan, Galiren berrautapenaren alde jarri dira Mendebal Europako herrialde gehienak, Afrikar Bata-sunerako Erakundea, Txina, Errusia, Japonia eta Kanada. Etsai gehiegi, Estatu batuentzat ere.




**KOLDO ALDABE**  
Kazetaria

Komunikazio sistemak ezezik lanaren erakuntza ere ari da aldatzen elektronika

# Bulego finkorik gabeak

**M**ilioika langile, ejekutibo eta enpresarik ez du jada bulegorik behar; aski dituzte lanerako 'nomada birtual' hauek telefono eta ordenadore mugikorrak, faxak eta gainerako tresneria elektronikoak.



Internetek 'sedentarismo birtuala' dakar; 'nomadek' ez dute bulego beharrik.

BULEGO finkorik gabeko langileen garaia heldua da. Telefono mugikor, mikro-ordenadore, fax, modem eta gainerakoez inguratuta beti; hegazkin edo abiadura handiko trenetan ere lanean; lanerako eta aisirako ordutegi jakinik gabe... horrelaxe ibili ohi dira bulegorik gabeak. Eta horien kontura barrerik ez egiteko gomendatzen dute soziologo, ekonomista, filosofo eta era guztietako igarleek, gutarik edonor ere laster izan bailiteke antzerako egoeran. Alegia, etxeko gelaren bat

lantegi bihurturik, edo nonahi gaudela ere ordenadorea pizteko prest. Komunikazio alorreko aurrerakuntzek lan erakuntzan sekulako eragina izango baitute. Eta zenbait alorretan hasiak dira aldaketak gauzatzeko. Mikro-txipek txikiagotu egin dute mundua, globalizatu, urrutikoa hurbildu.

Arriskua, dio Paul Virilio filosofo frantsesak, hurbile-

koa urruntzean legoke. *«Teknologiaren erabilerak gutxietsi egiten du hurbilekoa eta urrutikoa (usainik gabeko aingerua) hobetsi. Urrutikoa 'zapping' eginez ezaba liteke; hurbilekoa agoantatu egin behar izaten da. Urrutikoa maitatzea, hori da gizaki modernoaren ezaugarria... Gizaki bionikoa sortzeko bidean gabiltza agian. Zergatik ez,*

*adibidez, mikro-telefonoak itsatsi belarrietan jaito berriei, eta bildakoan deskonektatu?»*, diosku Virilio. Bere ustez, gizarte modernoan bi jende mota bereiz litezke: telekomunikazioei esker noiznahi noranahi heltzen direnak, batetik; eta zibermundutik aparte daudenak, bestetik.

Kontuz gero! Ez elkarrekin nahasi Interneteko nabi-

## ■ 'Nomadismo birtuala'k deslektzea dakar, totalitarismo berri baten arriskua, Paul Virilio filosofoaren iritziz

gariak eta 'ziber-nomadak'. Internet erabiltzen dutenak sedentarioak dira, bulegotik edo etxezuloetik mugitu gabe harat honat ibiltzen direnak. 'Ziber-nomadak', aldiz, bazterrik bazter dabiltza beti, trenetaz edo hegazkinez gehienetan. Frantsesek, edozeri siglak jartzeko ohiturari jarraiki, asmatua dute izena nomada berri hauentzat: SBF, «Sans Bureau Fixe», Bulego Finkorik Gabek. Artistak, iturginak, igeltseroak, abokatuak, arkitektoak, medikuak, albaitariak... orain artean kale jakin bateko etxe jakin batean egoitza edo bulegoa zutenak gaur egun telefono zenbaki baten jabe dira soilik. Zer esanik ez idazleak, gidoigileak, itzultzaileak, free lance kazetariak, disenatzaileak, zerbitzu informatikoak eskaintzen dituztenak eta, jakina, lan komertzialetan aritzen direnak. Hauetarik askok ez dute jada bulegoaren alokairurik zertan ordaindurik.

### Desintoxikazioa

HORRETAN gastatzen ez dutena, ordea, tresneria elektronikoan ordaindu behar. Frantziar, adibidez, 8-10 milioi telefono mugikor izango da gutxi barru, 2.000. urterako. Ordenadore mugikorak, milioi batetik gora. Eta gisa bereko beste zenbait aparailu ere erruz ari da saltzen: Alphapage, Tam-Tam, Tatoo... Estatu Batuetan, berriz, askoz hedatua da bulegorik gabeko lana. Milioika lagunek dute bulegotzat maletatxoa. Eta

milioika dira lan sistema berriaren kalteez ohartzen hasi direnak. Elliot Wertheim ejekutiboaren historia litzateke adierazgarri garbia.

*«Etxean eta autoan neukan nik bulegoa. Telefono zelularra, 'pager'a, telekopiatgailua... Edozein informazio segituan jaso eta segituan bidaltzeko moduan, edozein ordutan, gau eta egun. Euskarri fisikorik gabeko enpresa izateak zera eskatzen du ordainetan, beti prest egotea, bezeroen edo lankideen eskura. Eta 'beti prest' sistemak ito egiten zaitu. Goizeko hiruretan edonork esna zaitzake, inongo baliorik ez duen dokumentu bat igortzeko. Azkenik, bulego bat alokatu dut New Yorken. Lehenengo tresneria berbera erabiltzen dut, baina bulego orduetan soilik. Desintoxikatu egin behar izan dut nire burua», zioen Wertheimek Frantziako aldizkari batean.*

'Nomadismo birtuala' deritzaion honek, izan ere, denboraren alde egiten du, eta espazioaren aurka, Paul Virilio filosofoaren iritziz. *«Urrutitik urrutira biltzeak, bertan egon gabe bertan egoteak, deslektzea dakar. Hiria, jendearen bilgunea, alferrikakoa bilakatzen da. Lekuak ezabatu egiten dira, denboraren mesedetan. Inoiz ezagutu ez dugun totalitarismo baten ataritan izan gitezke. Zibernetika bitza, ez dezagun abantzi, grekotik dator: 'kuberman'. Gobernatu.».*


XABIER ARANBURU

## DIRUAREN HOTSA

### 'Enplegua helburu'ren proposamenak

**E****GUN** Euskal Herrian bizi dugun egoeran ez da lan erraza sozioekonomia kokatzea iritzi plazan, edota ekonomiak gizartean eta langileengan duen eragina aipatzea. Egunkari eta komunikabide gehienetan, zoritxarrez, eta auskalo zein interesengatik, politika, Euskal Herriko gatazka eta futbola dira nagusi. Hainbat forutan enplegua dela gure herriko arazorik larriena esateak errepentsamendu ortodoxotik kanpo uzten zaitu. Bestalde, makroekonomia da erlijio berria; eta ortodoxoei bost axola zaie horren baitan sortzen ari den gizarte eredu.

**EKONOMIAZ** hitzegitera behartuta gaude, hala ere. Langabezia, prekarietatea, esplotazio egoerak eta gizartetik kanpo geratzen ari diren kolektibo gero eta handiagoak... horiek baitira sindikatuon erronkarik larrienak. Horiek guztiak aipatzeak heterodoxiaren eremuan jarriko bagaitu ere. Giro honetan sortua da ELAk proposatutako Enpleguaren Aldeko Alternatiba. Hor ageri diren neurriak ez dira berriak, ezta ulertzeko zailak ere.



XABIER ANZA

ELAko Gazteen Alorreko arduraduna

**LANORDUAK** gutxitzea, ordu estrak ezabatzea edota denbora libretan ordaintzea, 60 urtetik gorako langileei jubilazio osoa hartzeko eskubidea ematea (edo lanordua erdiraino murriztekoa), eta azkenik, lanean ari diren borondatez sortzen diren enplegu banaketa aukera aprobetxatzea (umeak zaintzeko, ikasteko eta abar). Ulerterrazak dira konpromezuok; aurrera eramatea ez da hain erraza izango. Administrazioak dirua jarri beharko luke soldaten kostua ez handitzeko eta langileen soldadak ez murrizteko. Enpresariak, aipatutako neurriak onartzuz gero behintzat, langile gehiago kontratatuzko konpromezua hitzartu beharko lukete. Eta nondik eskuratuko ote administrazioak horretarako dirua? Bi iturri bederen ageri dira: langile berrien Gizarte Segurantzako eta Errentako etekin berriak. Eta langabeen kopurua murriztuz gero, langabezia subsidioetarako diru gutxiago beharko litzateke.

EKBk Hizkuntz Dinamizazioari buruzko ikastarora katalanen esperientzia ekarriko du

# KATALANEKIN DINAMIZATU

**P**asa den urtean Katalanaren Plangintza Orokorra martxan jarri zen. Hauxe izan da munduan egin den lehendabiziko Plangintza Orokor bakarra. Esperientzia hau kontuan hartu du EKBk eta hizkuntz dinamizazioari buruzko ikastaroak antolatu ditu Kataluniako adituen laguntzaz.

EKBk gertutik jarraitu du Plangintza honen diseinua-ren eta aplikazioaren prozesua. Izan ere, Euskararen Unibertsoa delako mugimenduan dago sartuta EKB buru-belarri. Proiektu honetatik abiatuta euskalgintzaren inguruan zenbait kezka azaldu ziren beren artean, eta azkenean aparteko proiektu bat egitea erabaki zuten. Euskararen Unibertsoa mugimenduaren egiteko funtsezkoen artean Plangintza Orokor Sozial baten prestakuntza eta gauzatzea dago. Datorren urteko otsailean egingo dituen jardunaldietan eztabaidatuko diren txostenen artean, plangintza egiteko metodoen proposamenak aurkeztuko dira. EKBk katalanaren plangintzaren metodologiatik erabilgarrien iruditzen zaizkion puntuak aurkeztuko ditu. Izan ere, EKBren ustetan, euskaldunok asko ikasi baitezakegu katalanengandik gai honetan.

Hau guztia ikusirik, EKBk Hizkuntz Dinamizazioari buruzko Ikastaroa antolatu du Azaroaren 28 eta 29rako. Honen helburuak katalanek erabili dituzten metodo eta teknikak Euskal Herrian ezagutarazi eta zabaltzea dira. Landuko diren gaiak, aldiz, honako hauek: dinamizazio linguistikoaren hastapenerako formazioa; normalizazio linguistikoaren planen diseinua, gauzapena eta ebaluaketa; normalizazio linguistikoarentzat komunikazio teknikak eta, aldi berean, horientzat negoziatuzio-teknikak.

Ikastaroa hizkuntz dinamizazioan dabilzanei zuzendua dago, batez ere euskalgintzako elkarteetan dihardutenentzat eta administrazioko euskara teknikarientzat. Euskara elkarte,

euskaltegi, ikastetxe edo euskalgintzako edozein erakundeetako arduradunak dira ikastaroa antolatzeko gogoan izan dituztenak, baina elkarte horietako beste edozein kiderentzat ere zabalik dago.

## Kataluniako irakasleak

IRAKASLEAK Toni Mataix, Bartzelonako Hizkuntz Normalkuntzarako Zentruko zuzendariordea eta Jaume Urgell, Consorci per a la Normalizació-ko programako koordinatzailea izango dira.

Azken honek adierazi digunez, «dinamizazio linguistikoa katalanaren normalizazioaz arduratzen diren erakundeen lan ildo bat da. Bere helburua erakunde ezberdinetako eguneroko funtzionamenduan kata-

lana sustatzea da. Consorci per a la Normalizació Linguística-ren kasuan, dinamizatzaileak arlo desberdinetako dinamizazio programa eta kanpainak aurrera eramaten dituztenak dira».

Gainera, elkarte, enpresa eta administrazioarekin kontaktuan egoten direla baieztatzen du. Zentzu honetan, «programen arrakastan pertsona hauen lana faktore garrantzitsuen da. Hizkuntza formakuntza ezinbestekoa da, baina beharrezkoak dira, era berean, beste zenbait gauza: herri mailako programen planifikazio eta zehaztasuna; ekimena; erantzukizuna eta izpiritu komertziala. Izan ere, askotan dinamizatzaileak katalanaren eta Consorci-ak eskaintzen dituen hizkuntz zerbitzuen bultzatzaile baitira».

Urgellek azaldu duenez, dinamizazioak ekintza desberdinak hartzen ditu bere baitan: «Elkarteekin egiten den lanean (enpresak, Administrazioak edo gizarteko beste elkarteak) normalizazio linguistikoaren bitartez egiten diren partehartze orokorrak azpimarratu behar dira (katalanezko ikas-

**■ Dinamizatzaileak programa baten arrakastan faktore garrantzitsuenak dira»**

**JAUME URGELL**



tarook, testu eta agirien zuzenketak, material erabilgarrien informazio...). Beste maila batean, dinamizazio kanpainak daude: katalanera itzuli diren programa informatiboak, kotxeko karneta katalanez ateratzeko lehiaketak, katalanez etiketatutako produktuen erakusketak eta abar\*.

Dinamizazioak administrazioetan jokatzen duen papera ezagutzea ere garrantzitsua da. Consorci per a Normalizació Lingüística-ko programa-koordinatzailearen ustetan, oso ezaugarri bereziak ditu dinamizazioak esparru honetan. Lehenik eta behin, bereiztu egin behar dira administrazio desberdinak: «Kataluniako Generalitateko sailek eta beren menpean dauden beste erakundeek (ospitale publikoak, Generalitateko enpresak, eta abar) instituzio hauetako beharrei erantzuten dieten hizkuntzalariak dituzte. Gainera, horietako sail bakoitzak egin beharreko ekintzak aurrikusten dituen normalizazio linguistikoko plangintza bat du». Generalitateko kasuan, garrantzitsua da hizkuntz perfilak eta funtzionarien katalanaren erabilera jasotzen duen marku legala ere kontuan hartzea.

Aipatutako Consorci da udaletan katalana sustatzeaz arduratzen dena. Momentu honetan ez dago Generalitatean bezala udaletako funtzionarien katalanaren erabilera arautzen duen legerik. Horregatik, normalizazioaren planak ez dira berdinak herri eta eskualde guztietan.

IDOIA TORREGARAI



## ITZIAR LABAKA

Epaitegiko itzultzailea

**Epaileak, fiskalak, idazkariak eta funtzionarioek orohar euskaldundu arte itzultzaileerik gabe nola berma daiteke euskararen erabilera justizian?**

## IÑIGO SANTXO

Abokatuak


Abokatuok zenbait neurri proposatu ditugu auzitegi eta epaitegietan euskararen erabilpena bermatzeko eta hauek dira, besteak beste, plazaratzen ditugun proposamenak: bertan ibilbide edo unitate organiko euskaldunak deitutakoak sortzea; euskara lan-hizkuntzat hartuko duten eskema organizatiboak bideratzea; Justizia Administrazioan dihardugun agente guztiak batuko litzukeen Partzuergo bat eratzea, azken finean, partzuergo honek plangintza bat diseinatu eta berau egikaritzeko gaitasuna izan dezan.

Neurri hauek guztiek, azken finean, ez dute zerikusirik auzitegi-tako itzultzaileen existentzarekin eta, nire aburuz, itzultzaileak dira gaur egun behin-behineko eran

hizkuntza eta euskaldunen defentsa eskubideak berma ditzaketen bakarrak.

Auzitegi-tako itzultzaileez sistematikoki baliatzea, euskararen erabilpena bermatzea baino, euskaldunon aurkako neurri disuasorio-diskriminitzailea da.

Espainiako Justizia Administrazioaren organigramaren barnean, auzitegi-tako itzultzaileek gaur egun betetzen duten funtzioa —hau zoosemikoki aztertuz badugu, behintzat—, manporeroarena da, eta honen aurrean abokatu batek hori ezin dezake inolaz ere onartu.



## U R R E A



● Nafarroako Mendi eta Eskalada Federakundeak, Goimendi eskolak, Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak antolatuta, euskarazko lehen mendi jardunaldiak egin dira Iruñean.

## G O R O T Z A



● «Itsasertzeko egistamoa. Ingurugiro Ministeritza. Hondarribiako Udaletxea. Konponketa eta Finkapena Butron Ibiltokiaren». Hondarribiako euskaldunek ez dute ulertuko, behintzat.

Sarien argira bildu ziren euskarazko komunikabideak

# ARGIAREN OLENTZERO

**O**latz Zugastik, Luis Fernandezek, Arrasate Telebistak, Optika Zinkunegik eta «Irutxulo»k etxeratu zituzten Antton Mendizabalek egindako ikurrak. Euskarazko komunikabideen bazkariak postre gozoa izan zuen: **ARGIA Sariak.**



Hizketari ez zioten huts egin OPIek; ezagun da komunikazio alorrean dihardutela. (A.: G. G.).

HILABETEKO aurrerapenaz ospatu zituen Eguberriak ARGIAk. Zortzigarren bezala bere burua Olentzeroz moztu eta euskal komunikabideak saritzera jarri zen.

Bertsolari etorri zen, etorri ere, sari-emailea. Euskal kultura eta komunikabideetako OPIak (Oso Pertsona Inportantea) Txitxardin Beltxean bildu zituen. Kultur uretako arrain ugari. Elkartu eta derrigorrezko diosalen eta borondatezko

agurren ondoren, mahaietara jo zuten gonbidatuek Pello Zubiria zuzendariak hasiera-txintzarria jo eta gero. Koktaileko ardaila marmar isila bihurtu zen. Krabarroka budinek, espina eta ganba nahaskiek eta bereziki entrekotek hartuak zituzten bazkaltarren aho-urdailak.

Kafearekin isildu zen areagotzen zihoan berbaroa. Joserra Senperenak estreinako notak ebatsi ziz-

kion pianoari eta Mikel Garikoitz kantuan hasi zen. ARGIA Sarien plaza eratu zen, eta bertsoa errege. Joxe Mari Irazustak bi bertsotan aurkezpena eta ongi etorria eginda, epaimahaikoen txanda iritsi zen.

## Sarien plaza

OFIZIOKA jardun zuten. Bai kantuan baita sari banaketan ere, prentsa deitutako ofizioari emanen lehena. «Euskaldunon Egunkaria»-ko

KZren arduradunak, Luis Fernandezek jaso zuen saria. KZ egiten kolaboratzaile dituen guztien altxora banatu nahi izan zuen saria eibartarrak. Bertsoa bitarteko, letratik belarrira. Olatz Zugastik irabazi zuen irati arloko saria «Kantaita» programatik. Telebista alorreko saria, bestalde, Arrasate Telebistaren antenara igorri zuten epaimahaikoen.

Gaur egungo komunikazio eredu jarraiki, publizi-

tateari tartetxoa egin zion epaimahaiak, eta Optika Zinkunegiri eman publizitate alorreko saria. Hainbat urtetan ttipi-ttapa egindako bidea omendua zen.

Merezimenduzko saria ere bazen, Donostiako «Iru-txulo» aldizkariak jaso zuena. Urtarrietik aurrera dohaineko banaketa utzi eta saltzen hasiko direla iragarzteko aukera profitatu zuen Edurne Otamendik.

Deskantsua hartu zuten epaimahaiko Ines Intxausti, Balere Bakaikoa, Jon Sarasua, Edorta Arana eta Xabier Lasaren eztaari eta urdailek. Euren bertso saioa amaituta, han geundenon belarriek ere hartu zuten deskantsurik (epaile lana fin betetako batzuei bertsolari lana lodi egin zitzaizen).

Bertan egon gabe, txalorik gehien Martin Ugaldek jaso zituen. Omenezko bertsoetan «euskal prentsaren osaba» deitutakoari oparia eta ezagutza eman zizkion ARGIAk, Asisko Urmenetak egindako karikatura ikusgarri baten bitartez.

Doinu eta neurri egokian, polito joan zen ekitaldia. Kantuan hasi eta burututako jardunaldia kantuan amaitu behar. ARGIA Sarietara hurbildutako guztiek Joxe Mari Ostolaza «Xalbardin»-ek osa-



**Goiko argazkian, etxeko apalen batean hutsunea egin beharko dutenak. Behekoan, Jose Agustin Arrietak tinko eusten dion liburuaz (berria?) galdezka Pello Zubiria. Kazetari sena. (A.: G. Garaialde).**

tutako bi bertso abestuz azkendu zen ekitaldia. «Ez, ez, ez, estali, balia bizirik den artian». Gabon giroan. Udazkeneko arratsa aurrera zihonan, kanpoan ilun eta baruan ARGIA.

**MIKEL ELORZA**




## Asma ezazu berehalaxe zertan gelditu den gizon hau atzean

Jakina. Oraindik ere betaurreko zaharkituak erabiltzen ari da. Oraindik ere ez da konturatu MULTIOPTICASen Indo Lente Progresiboak egokitzen dituztela. Hoberenak, azkenak, distantzia guztietara bikain ikusteko modukoak. Orain badakizu, zatoz MULTIOPTICASera eta izan zaitez egunean.



MultiOpticas mailegu txartelarekin, ordainketa atzeratua.



INDO LENTE  
PROGRESIBO BERRIAK,  
MULTIOPTICASen


**ZINKUNEGI**  
**MULTIOPTICAS**  
ZERBITZU OPTIKOETAN 1a

Hernani, 4 - DONOSTI

Ur Partzuegoak antolatuta «Kaixo, ura» erakusketa ibiltaria ikusgai herriz herri

# GIPUZKOA UR BERRIZ BUSTI

**K**aixo ura» erakusketa Billabonan izango da datorren astean Gipuzkoako Ur Partzuegoak antolatuta. Ur-azpiegitura aldaketek erakusten dutenez, ur berriz bustiko da herrialdea datozen urteetan.



Beasainen izan zen erakusketa joan den astean. (Arg.: Garikoitz Garaialde).

«KAIXO ura» erakusketa ibiltaria ekainaren 27an zabaldu zen Azpeitian eta urtarrilaren 11n amaituko da Eibarren, Gipuzkoako 18 herritan zehar ikusgai izan ondoren. Gipuzkoako Ur Partzuegoak antolaturiko urari buruzko erakusketa honek hiru helburu nagusi ditu antolatzaileen iritziz: erakunde honek kudeatzen duen lurraldeko saneamendu-planaren berri ematea, finantziaketa-kanona azal-

tzea eta «uraren kultura berrriaren oinarriak» jendeari ezagutaraztea.

Gipuzkoako Ur Partzuegoa 64 udalerrik osaturiko erakunde publikoa da, Gipuzkoako Foru Aldundia ere partaide dela. Oria, Deba eta Urola ibai-arroetako uraren zikloa kudeatzen du (euri-uren bilketa, urtegi eta araztegien eraikuntza, banaketa sarearen hobetzea,

ur zikinen garbiketa eta isurketa). Udalerrri bakoitzeko uraren banaketa, aldiz, udal bakoitzaren ardura da. Gipuzkoako lurraldearen % 82 hartzen du, udalerrrien % 72 eta 311.000 biztanle biltzen ditu. Erakunde honez gain, hala ere, beste bi daude Gipuzkoan: Añarbekoa (Donostialdea) eta Txingudikoa (Irun, Hondarribia).

«Kaixo Ura» erakusketa 30 txartelez eta ur edangarrien araztegi baten maketaz osatua dago, baita bideo didaktiko batez ere. Panelen edukia sei atal nagusitan banatuta dago erakusketan: Ur Partzuegoari dagokiona, horniketaren ingurukoa, saneamenduarena, uraren prezioa eta saneamendu kanona azaltzen dituen eta, azkenik, kontsumoa eta

## “Orain ur zikinen araztegi bakarra badago ere, datozen urteetan hamar berri eraikiko ditu Ur Partzuergoak Gipuzkoan

uraren kultura berria azterten dituena.

Ur-horniketa mailan sei urtegi eta lur azpiko gordeleku bat dira ura biltzeko azpiegitura nagusiak Gipuzkoan (Urkulu, Aixola, Barrendiola, Lareo, Arriaran, Ibai Eder, Kilimon). Udalerrietako biltegiatara banatu aurretik araztegiak garbitzen da ura. Horniketa mailan egiteko dagoen azpiegitura nagusia IBIUREko urtegia da, Baliarrainen aste honetan hasita eraikiko dena.

Ur zikinen saneamendua edo garbiketaren egoera, aldiz, oso desberdina da. Gipuzkoan ur zikinen araztegi bakarra dago funtzionamenduan egun, Azpeitian, eta Azkoitia eta Azpeitiako ur zikinak garbitzen ditu. Datozen urteetan, baina, hamar araztegi berri eraikiko ditu Ur Partzuergoak: Bergaran, Elgoibarren, Deban, Mutrikun, Legorretan, Andoain-Lasarte artean, Urretxun, Zumaian, Getarian eta Zarautzen. Lanen zatirik handiena datozen lau urteetan burutuko da (40.000 milioi pezetako lanak), Urretxukoa eta Debakoa izango dira lehenak.

### Saneamendukanona

DATOZEN urteetan ur zikinaren saneamendurako egingo diren lan horien guztien

## Uraren kultura berria

Erakusketak uraren kontsumoarekin loturiko ohi-turei buruz ere baditu hainbat aholku. Egunero-ko bizitzara zabaldu nahi diren jokaera eta baloreak dira «uraren kultura» berri honetan proposatzen direnak. Hiru ardatz nagusitan oinarritzen da: uraren aurrezte eta honen arazoizko erabilera, kalitatea eta ingurugiroarekiko begirunea.

Nola aurrez dezakegu

ura? Lehenengoz, dutxa hartuz (30 litro 3 minutuko) bainuaren ordez (130 l.); bigarrenengoz hortzak, eskuak... garbitzerakoan edo dutxatzean xaboa ematerakoan iturria itxiz (5-10 litro aurrez daitezke); hirugarrenez, iturrietan difusore-ekonomizazioak ipiniz; laugarrenez, elektratsaren bat erosterakoan (arropa edo ontzi garbigailuak), ur kontsumoak aztertuz eta

beterik daudenean behar bezala erabiliz.

Boskarrenez, komuna zakarrontzi modura ez erabiliz (ur-gordelekuek 10 litrotako edukiera dute batez beste; ur-botila sar daiteke kontsumoa murrizteko eta maila desberdinetako tiragailuak dituztenak ere badaude). Bestalde, ur-banaketa sarean galera edo ihesak nabaritzen badira, udalei jakinarazi behar zaizkie.

kostuaren zati bat ordaintzeko uraren prezioari erantsi zaion gehikuntza da saneamendu-kanona. 0,03 pezeta litroko da Ur Partzuergoak udalerriek kobratzen dien gehikuntza hori. Ondoren, udal bakoitzak erabakitzen du herritarrei zenbat kobratu erabilitako ura eta dagokion gehikuntza (udal-fakturan askotan «Azpiegitura» modura agertzen da). «Saneamendu-kanonarekin biltzea espero den diruarekin, aipaturiko obren % 25a beteko litzateke. Gai nontzekoa Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean osatuko da.

Gaur egun erabiltzaileek 0,09 pezeta ordaintzen dugu litroko batez beste etxeetako ur erabilera eta 0,12 pezeta gainontzeko erabilere-tan. Araztegiek etxeetako, udal-zerbitzuetako eta antzeko ur zikinak sortzen dituzten lantegietakoak garbituko dituzte. Bestelako lantegiek, berriz, beren araztegiak izan beharko dituzte behar diren kasu guztietan.

Ura zertan erabiltzen da Gipuzkoan? Uraren % 40

etxetako kontsumoan erabiltzen da, % 20 industrian eta % 10 udal kontsumoan. Gainontzeko % 30 ihesetan galtzen diren urek osatzen dute. Galera gehiena udalerrietako ur-biltegietatik erabiltzaileenganako bi-

dean gertatzen da. Dena den, enpresa handi askok beren ur-iturri pribatuak dituztela-eta, industriako ur kontsumoa portzentai hori baino handiagoa da.

MIKEL URRUZOLA

**oskorri**  
**ARGIA**  
**25**

+ Kukubiltxo + Kepa Junkera  
**ARETXABALET**  
Azaroaren 30an, larunbatarekin  
Herriko Kiroldegian  
Gaueko 10.30etan

# «12.000 idazle dituen herri bat ez da kulturarako ezgai, alderantziz»

**G** etxoko dorre batean bizi da, antzezlan baten porrotak bere familiaren Balmasedako jauregia saltzera eraman zuenetik. Liburuak eta euskal idazleak ditu bizibide, hamar atal argitaratu ditu jada euskal idazleen bibliografia jasoz, laster CD-Romean izango ditugunak. Aroak ditu idazterakoan: antzerkia, bibliografia, historia... Horregatik ei da humanista.


*Zure lehen antzezlan arrakastatsuari belduta, zer egiten du abokatu gazte batek antzerki lanak idazten eta nola lortzen du bat-batean Espainia mailan borrelako arrakasta?*

Testuingurua izan behar da kontuan. Nik jesuita izan nahi nuen eta lau egun egin nituen gogo-jardunak egingen. Baina nire gurasoek nire

gogoaren aurka ekarri egin ninduten Loiolatik. Nik Filosofia eta Letrak karrera egin nahi nuen, baina gurasoek Zuzenbidea ikastera behartu ninduten, nik nire burua defenda nezan.

«Redentor del mundo» hamasei herrialdetan estreinatu zen. Bogotan 50.000 pertsonak ikusi zuten, Luis Maria Ortiz de Zarate nire lagunak hala esan zidan.

«Redentor del mundo» antzezlan hamasei herrialdetan estreinatu zen. Bogotan, esaterako, 50.000 pertsonak ikusi zuten, Luis Maria Ortiz de Zarate nire lagunak hala esan zidan behintzat». (Argazkia: Garikoitz Garaialde).



« Luis Moreno  
Jon Bilbaoren  
idazkariarekin  
begirune gutxi izan  
dute, bidali egin  
dute; bera gabe  
Fundazioak ez du  
aurrera egingo»

Gero nire konpainia sortu eta Madrilen Infanta Beatriz antzokian estreinatu nuen eta han izugarrizko jipoa eman zidaten «El inventor de la luna» obrarekin. Estreinua nahiko desatsegina izan zen, aldaketak oso pisuak eszenatoki asko zeudelako, Maria Luisa Ponte aktorea trabatu egiten zen, zuzendariak adierazpen zirraragarriak egin zituen... Horrek guztiak eragin handia izan zuen niri horrelako jipoa emateko.


Orduak Jorge Oteizak zera esan zidan: «*Obra hau ona da, baina ona dena jende honek bankekin ordaintzen du. Abaztu hau guztia, lanean jarraitu mendian eta idatzi, alfer bauei jaramonik egin gabe.*

**Eta hemen jarraitu zenuen antzerkia idazten?**

Bost edo sei liburu argitaratu ditut, bakoitzean lauzpabost antzerki lan dituztela.

**Eta nola lortzen da arrakasta bain gazte izanda? Karrera amaitu berria zenuen, ezta?**

Nik ospea ez nuen gaztetan lortu. Arrakastaren mendi puntara iristean desagertu egin nintzen, mundua zapaldu gabe, nire lanean murgilduta. Humanista naiz idazle berezitua baino gehiago, aroka idazten dut: dramaren aroa, bibliografiaren aroa, historiaren aroa...



Euskal autoreen inguruan idatzitako hamar atalez gain, «El doctor Garate, crítico de críticos» idatzi dut orain, komunikabideetan argitaratu ditudan artikuluen sailkapen bat ere kaleratu dut, baina Wilsen Nafarroako argitaletxeak dohainik egin duenez, 200 ale bakarrik ditut.

**Espainiako Gudak zertan baldintzatu zuen zure bizitza eta lana?**

Ni eskubikoa nintzen. Balmasedako gure etxean Carlos VII-k lo egiten zuen eta hura hark utzi zuen bezala gorde zen, aldatu gabe. Karlista zen nire familia.

1936an nire aitari ondatsun guztiak kendu zizkioten

«Arrakastaren mendi puntara iristean desagertu egin nintzen, mundua zapaldu gabe, nire lanean murgilduta. Humanista naiz idazle berezitua baino gehiago, aroka idazten dut: dramaren aroa, bibliografiaren aroa, historiaren aroa...». (Arg.: G. G.)

eta horregatik hamabi urte nituela lanean hasi nintzen, kafea xigortzeko gurdia eramanez. Baina Banku Zentraleko zuzendari batek nire aitari esan zion lagunduko ziola eta horrela egin genuen aurrera.

Guda Zibila amaituta, karlista eta falangistak elkartu egin ziren, beraz, foruen defentsa ahoz bakarrik egin dute karlistek. Baina liberalek ere defendatzen zituzten foruak. Era berean, karlista talde bat (errepublikaren ingurukoa) ez zegoen ados Alderdi Karlistaren jarraitarekin. Urte horietan nik eskubikoa izaten jarraitzen nuen. Reketeetan sartu nahi izan nuen hamabi urte nituela. Izena ematera eta guzti joan nintzen. Guda garaian, baina, aldatu egin nuen ideologia Hitler-ekin eta gertatu zenaren berri izatean.

**Eta aldaketa horrek arazoak sortu zituen familian?**



Oviedon egin zituen 4. eta 5. maila eta han hasi zen antzerkia idazten ● 24 urte zituela hasi zen antzezlanak estreinatzen, arrakasta handiena izan zuten artean «El redentor del mundo» ● Berrogeita hamabost liburu ditu argitaratuta; antzerki-lanez gain euskal idazleen bibliografia landu du batez ere: hamar atal ditu «Autores Vascos» bere lanak

## «Hemen dugun hiririk kulturalena Donostia da; bestela, Bilbon-eta negozioa besterik ez dago»

Eztabaidak sortu ziren, baina ez gehiago. Geroago nik postu politikoak izan nitzakeen, baina ez nuen horretarako gogorik. Idazleak ez du balio politikarako, duen ideia jario eta aldaketekin...

**Zure burua humanistatzat duzu, aroka lan egiten duzulako. Berriz antzerkia idazteko gogorik ez duzu?**

Espainiako Gudaren inguruan zazpi lan ditut buruan, horietako bat argitaratu dut, Unamunoren amaiera. Beste Primo de Riveraren hil aurreko garaiari dagokio, beste bat Jose Antonio Agirreraren ingurukoa... Ez dit denborarik emango, argitaletxeak euskal idazleen atalak CD-Romean argitaratu nahi baititu eta urte amaierarako bukatzea nahi dute. Ezinezkoa da, ordea.

**Nola iritsi zinen dorre bonetara bildu eta euskal**

**idazleek egindako guztia bilatu eta pilatzera, zure lan propioak idazteaz gain?**

Nire lanak hutsuneak ditu, baina beste inolako lanek gorde ez duena dauka. Autorearen biografia (ez guztiena, 12.000tik 2.000rena edo), idazlearen erreferentziak eta idatzitakoa.

**Jon Bilbao eta zu bain burbil izanda, nolatan ez zenuten zuen lana koordinatu?**

Nire laguna zen, ez nire maisua. Elkarrekin egoten ginen, 200 metrotara bizi baitzen. Jon Bilbao ni baino askoz ere lehenago hasi zen lanean, 20 urte zituela. Fernando de los Rios ministroak esan zion zerbait unibertsala egin nahi bazuen bere herriaz eta bere herrian lan egin behar zuela. Munduan zehar bidaiatzen hasi zen gure herriaz argitaratu-

tako guztia biltzen. Urte askotan bakarrik lan egin zuen, baina une batean EAJk bere laguntza eman zion eta dirulaguntzen bitartez lantalde bat eskaini. Hil arte lan egin zuen talde horrekin.

**Zuk lantalde horretan parte hartzea ez zenuen pentsatu?**

Baina nik ezin nuen lantalde horietako batean sartu. Nik laguntza behar nuen bakoitzean eskatu egiten nion eta mesede horiek zor dizkiot. Berak eraman ninduen Aunamendi argitaletxera nire lanak argitara zitzaten, beraiekin zuen harremana hautsi zuen arte. Orduan Eusko Jaurilaritzan sartu zen, Sancho el Sabio Institutuan lanean jardun zuen, haiekin ere harremana moztu zuen arte. Ondoren Gasteizen bibliografia elkarteak sortu zuten, Endrike Knörr eta horrelakoekin batera, eta horiek dirudun jendea dira. Horiekin ere amaitu zuen.

Orain argitaratuko da Luis Moreno bere idazkariak idatzita Jon Bilbaoren obraren 1980tik 86rako atala. Moreno bidali egin dute, Kolonbiara doa irakastera, begirune gutxi izan dute berarekin eta bera gabe Jon Bilbao Fundazioak ez du aurrera egingo. Bilbaoren hutsunea ez du inork beteko. **Bibliografiari dagokionez, azpimarratu izan duzu idazleen liburuez gain artikulua eta horrelakoak ere aipatzea. Zein garrantzia du horrek?**

Artikuluek ez dute egunerokotasuna galtzen. Nire 30-40 artikuluren bilduma orain argitaratu dute eta jendea pozik dago, ez dute interesa galtzen. Herriaren arazoen inguruan idazten dut, ez horretaz bakarrik,

### NORTASUN AGIRIA

Bilbon jaio zen 1921ean, baina Balmasedan bizi. Bertako alkatea izan zen bere aita ● Castro Urdialeseko «Mariaren Bihotza» ikastetxean ikasi zuen ● Deustuko Unibertsitate berriaren lehen hiru urteak inauguratu zituen, Zuzenbidea egiten ●





«Eskubikoa nintzen guda aurretik. Balmasedako gure etxean Carlos VII-k lo egiten zuen eta hark utzi zuen bezala gorde zen». (A.: G.G.).

baina bai nagusiki. Beste lanik eskatuko balidate, gustura egingo nuke, baina orain nire gai nagusia herriaren gaiak dira: azkenak euskal kaligrafoen inguruan, euskal izengoitien inguruan, Bilboko hizkeraren hiztegia... Eta, batez ere, antzerkira itzuli nahi dut.

**Zer dago Jorge Oteiza eta zure artean?**

Jorge fidela da bere lagunekin. Nik defendatu nuen Euskadi Saria eman ziotenean 70eko hamarkadan. Hura jasotzeko nazionalismoaren aurkako hitzaldia idatzi zuen eta nik irakurri nuen. Han zeuden Leizaola, Uzturre... Ertzaintza niri begira eta ni eskutitz izugarri hura irakurtzen. Komunikat-

bide denek argitaratu zuten. Eta bi egunetara Euskadi Sarien idazkariak hori aurpegiatu zionean, niri leporatu eta oso «teatrala» nintzela esan zion, gainera.

**Kultur independentzia aldarrikatzen duzu independentzia politikoa- ren aurrekaritzat. Horretarako ezinbestekoa al da zure lana, erreferentzia moduan?**

Euskal idazleek asko, izugarri, idazten dute, gai guztien inguruan, beste edozein herri baino gehiago nabar-


mentzen dira: itzulpenetan, literatura industrialean, fabulan, poesian, euskal 98an... Euskal idazleak erreferentzia izateko literatur guneetara joan behar izan zuten, eta Madrilera joan ziren guztiak. Nik hori eragotzi nahi dut, euskal idazleak berriz ere Madrilera joan behar izatea. Hemen bizi, hemen lan egin eta hemen borrokatu behar da. Nik ez dut nire herritik aldegingo, gosez hilda ere. Orain badugu autonomiaren independentzia txikia eta ez

dugu joan behar. Bigarrenik, nor garen, zer egin dugun eta zer egin dezakegun jakitea nahi dut. Horretarako bildu ditut 12.000 euskal idazle. Orain esan dezaket jakinduariaren edozein adarretan gaudela. Eta 12.000 autore dituen herri bat ez da kulturarako ezgai, alderantziz. Hauxe da kultur independentzia, beste independentzia guztien ama, kultura baita guztiaren oinarri.

**Kultura maila borren aurrean administrazioak erantzuten al du?**

Zoritzarrez, ez. Alde batetik, arduradunak ez dira egokienak izan. Bestalde, hizkuntzak hitz gabe utzi ditu, agortuta, eta azkenik, Gug-

«Euskal idazleek asko, izugarri, idazten dute, gai guztien inguruan, beste edozein herri baino gehiago nabarmentzen dira»



«Jorge Oteiza fidela da bere lagunekin. Nik defendatu nuen Euskadi Saria eman ziotenean 70eko hamarkadan». (A.: G. Garaialde).

genheimen kentzen die dena orain. Literaturarako ez dago lehentasunik. Etorkizunean kultura maila nahikoa duen jendea ekarri beharko dute. Bestela, gauza hauek guztiek idazlearen konfiantza oztopatu dute.

Hemen dugun hiririk kulturena Donostia da, kulturena. Bestela Bilbon-eta negozioak besterik ez dago.

***Nola lotzen duzu independentzia nahi bori autodeterminazio eskubidearekin?***

Orain arte kendu egin dizkigute gure legeak, ohiturak, askatasuna eta foruak. Bere buruaz arduratzen ez den herria kolonizatu egiten dute. Eta honek esklabotza kutsua du. Ez gaitzean ino-

zoak izan, ez zaigu kanpotik inor laguntzera etorriko, alderantziz. Inguruan duen edozein erreferentzia har ezazue, GAL afera, esaterako, hain gai aktuala. Oinarrian, independentismoaren eratorri krudela besterik ez da. Hau tabu da Frantzia eta Espainian, eta sekretua izaten jarraitzen du. Duela gutxi jakin izan dugu Frantziako Poliziak GALEko hiltzaileei eman zizkiela euskal errefuxiatuen babes-eskaera dosierak, argazki eta guzti.

Autodeterminazioari dagokionez, gogoan dut Herzi egindako aurkezpen bat, Cesiden hierarkia maila altuan zeuden partaideak joan ziren aurkezpena. Hauek onartu egiten zuten auto-

determinazio eskubidea, baldin eta epeka eta beranduago gauzatzen bazen. Gizaldi asko dira jada goikoeekin eta behekoekin kolaboratzen, eta ez dakigu zer nahi dugun ere. Epekako autodeterminazioaren alde nago, beraz, bakoitzak abantaila eta aurkakotasunak ezagutu ditzan.

***Zergatik epeka?***

Gai hauek heldugabeak dira oso: gure luraren mugak, gure hizkuntzaren eta inguratzaren gaituzten hizkuntzen mugak, Nafarroa eta bertako erreferenduma... Formak gutxienez aztertu behar dira. Bakoitzak bere botua eman dezan, beraz, gai hauek epe bat behar dute heltzeko.

***Euskal idazlearen lekua***

***zein izan da auzi bonetan?***

Arduraduna izan da euskal idazlea. 1876tik bere izaera politikoaren galera jasan behar izan du. Euskal idazlea moda orotik kanpo dago, agian bizi osoa iraungo du idazlan bakarra egiteko, baina aurrera aterako du, Jon Bilbaok bezala, esaterako. Horrek ez du esan nahi mugimendu literarioetatik kanpo sentitzen duenik bere burua. Guztietan badago euskal hiritarren bat. 98ko belaunaldia aglutinatzailea da maila horretan, figura garrantzitsuenak euskal idazleak baitziren.

**RITXI LIZARTZA  
ARANTXA ERASUN**

# ARGIA

ASTEKARIAREN

GEHIGARRIA

# NEGUA

1.602. zenbakiarekin batera dohainik banatutako gehigarria / 1996ko abenduak 1

## Elur malkotan irristaka



INPRIMAKETA:  
ANZA S.A.L.

TESTUAK:  
ANDONI URBISTONDO  
ARRITXU ZELAIA ETA  
NEREA URANGA

INFOGRAFIA:  
AITZOL GOIKOETXEA

ARGAZKIAK:  
GARIKOITZ GARAIALDE  
ARTXIBOA

- Maldan behera seguru eta azkarrago material berriak lagun
- Surfa itsaso zurian
- Non eta zenbatean eskiatu: pirinioetan aukera zabalena
- Estazioak ez dira eskiatzeko bakarrik



# Maldan behera seguru eta azkarrago material berriak lagun

Botak, eskiak, betaurrekoak, eskularruak, petoa... eskiatzeko erosi ohi direnen zerrenda luzea da. Baina poltsiko gehienek neurrirako konponbideak izan ohi dira, asteburuko alokairua, oinarrizkoa bakarrik erostea... Hala ere beira zuntzeko eskiak, plastikozko botak edo beste edozein materialek ezer gutxirako balio du abileziarik ez baldin badugu.

**E**SKI pistetan egun ikusi ohi diren beira-zuntzeko eski, plastikozko bota edo bestelakoak atzo goizekoak dira, eskiaren lehen urratsak eman zituzten euskal herriarrek material arras desberdinak erabili ohi zituzten. Eski-oholak egurrezko listoi txikiz osatutako egitura konplexuz eginak ziren. Egun, mota honetako oholak oso garestiak dira, go-

reneko mailakoak bakarrik egin ohi dira zurez.

Eskiatzeko materialen artean, gaur egun beste hainbat tokitan ere aurki dezakegun materiala nagusitu da. Azken hamar-hamabost urtetik hona oholen kanpoaldea beira zuntzekoa da, aldamenak aluminiozkoak eta barrua espumaz edo egurrez beteak eginak dira.

Lehenago lokarritzen ziren botak, plastikoz-

ko loturekin lotzen dira egun. Urteen poderioz aldatzen joan dira, hasieran botei larruzko loturak jarri zitzaizkien. Gero apurka larruari gainetik plastikoa gehitu zaio. Eta azkenik oso-osorik plastikozkoak bihurtu dira, kolore biziak eta aukera handiak. Plastikozko azpitik hankak goxo eta eroso edukitzeko espumazko botinak izan ohi dituzte.

Loturek bilakaera nabarmena seguritatean jasan dute azken urteotan. Lehen batean oin puntan okertutako bi txapa eduki ohi dituzten. Oin puntatik hasi eta oinaren bueltan bira osoan zuten alanbreaz hanka erabat lotua gelditzen zen. Beranduago orain ezagutzen ditugun puntakoak merkaturatu ziren, gero atzeko loturak.

## BELAUNETIK BEHERA ONDO

ESKI ekipo osoa eduki ahal izateko hainbat elementu daude, hasi buruko zintatik eta eski oholetaraino. Baina azkenean eskiatzeko orduan garrantzia gehien belaunetik beherakoak du. Alokatuak edo erosiak izan litezke, aukera ematen baitzaigu ekipoa alokatzeko, inguruan ditugun denda berezietan edo pistetan eta ondoan dauden herrietan.

Inguruko denda berezietan batez ere iraupen eta mendiko eskiko ekipoak alokatzen dituzte. Asteburuko osorako mendiko eskiko ekipoaren alokairua 5000 pezeta (200 libera) da, egun batekoa berriz 3000



Eski ekipoa erosterakoan eskiatzailearen maila izan behar da kontuan, hasiberriak botak erosterakoan erosotasunari egin beharko kasu, doitasunari beharrean. (Arg: Garikoitz Garaialde)



«Estazioetan orain arte alokatzeko materiala, nahiko kaxkarra zuten. Euskal Herrian alokatzeko ohitura handirik ez da»  
Imanol Telletxea

pezeta (120 libera). Iraupen eskirako ekipoa merkeagoa da, erdi prezioan mendikoarekin alderatuz gero. Alpinoko eskirako ekipoa alokatu nahi izanez gero egun baterako eski pistetan 1000 eta 3250 pezeta bitarte an ordaindu ohi da.

Izadi izeneko kirol dendako eski saileko arduraduna den Imanol Telletxeak azaldu bezala, «*eski estazioetan hobetzen ari dira alokatzen den materiala, baina orain arte, nahiko kaxkarrak ziren. Euskal Herrian alokatzeko ohitura handirik ez dago. Gebien ezagutzen dudan adibidea Frantziakoa da, eta han jendeak ohitura handia du alokatzeko. Eurek esan ohi dute, urtean hamar egun ez badituzu eskiatzen ez dela komeni materiala erostea, alokatzea egokiagoa dela baizik.*

Ekipoa erosterako orduan eskiatzailearen maila eduki behar kontuan. Esaterako eskiatzailea berria bada, botak erosterako orduan kontuan eduki behar dugu erosotasuna eta ez horrenbeste doitasuna. Eski gainean nolako trebezia halako ekipoa erosi beharko litzateke. Erdi mailako ekipoa bat erosteko 45.000 pezeta (1800 libera) gastatu behar genituzke. Ekipo gares-



Eski pistetan alpinoko ekipoa alokatu nahi izanez gero, gutxi gora behera 1.000 eta 3.250 pezeta bitartean ordaindu ohi da. Pistetan baino inguruko herrietan alokatzea merkeagoa ohi da.

tiena mendiko eskikoa da eta eta merkeena berriz iraupeneko.

«*Mendiko eskiko loturak alpinokoak baino garestiagoak ohi dira. Honen arrazoia zera da; alpinoko loturetan askoz konpetentzia gehiago dago merkatuan eta gainera ale gehiago merkaturatzen dira. Aldiz mendiko eskiko loturen askoz gutxiago plazaratzen direnez garestiagoak dira.*

Eski oholak erosterakoan pertsonaren edo eskiatzailearen garaiera da kontuan edukitzen dena, norberaren garaiera gehi hamar zentimetro edukiko beharko litzateke oholek. Baina, garaiera berdineko pertsona guztiak ez dira

berdinak pisuz eta hau ere kontuan edukitzekoa da. Elur gainean mantentzeko, zenbat eta pisu gehiago izan oholak berak luzera handiagoa eskatzen du.

Eski oholak da gehien izorratzen dena eta kon-

ponketa ohikoena. Oholaren azpialdea plastikozkoa da, nahiko material biguneko da. Elur gutxi denean, harritxoekin azpialdeari arrastak egiten zaizkio, harri handiagoeekin zatitxoak galtzen ditu. Konponbidea badute horrelakoek ordea, denda berezietan adabakiak jarri ohi dizkiote eta ondoren lixatu, azalera leundu arte.

### ALPINOAN MODA NAGUSI

ALPINOAREN aukera egiten dutenek, materialerikiko jarrera berezia ei dute. Esaterako modak eragin nabarmena du, punta-puntako jantzi garestiak nabarmentzen dira alpinoko eskia- ren inguruan. Badira ordea, txandalarekin nahikoa dutenak ere.

Imanol Telletxeak bi multzo bereiztuko litzekela dio, «*bata urte osoan mendian ibiltzen dena eta gero neguan, eskiatzera joaten dena. Hauek mendian normalean erabiltzen duten arropa bera erabiltzen dute. Beste jende multzoa alpinoko bakarrik egiten duen jendea da. Moda da nagusi, kolorea, modeloa, marka. Oso garestia da.*

Easo kalea, 9  
DONOSTIA 20006  
Tel.: (943) 42 22 91

**BELAGO**  
**KIROLAK**

Mendi materialetan espezialistak



# Surfa itsaso zurian

Duela hiruzpalau urte snowboardari buruz gutxi hitz egiten zen. Bitxikeria modura bakarrik aipatu ohi zen. Egun joko olinpiko bihurtzekotan da. Gazteen artean lortu du arrakasta handiena, elur kirola egin nahi dutenen hirutik gazte batek snowboardaren aukera egiten du. Kirol honetan aritzen direnetako askok ez dute sekula eskiatu.

**D**ATORREN urtean Japonen izango diren Neguko Joku Olinpikoetan, Snowboardak ere lekua izango du. Ez da harritzekoa, urtean urtean jarraitzaile gehiago baititu snowboardak. Tokiaren arabera, ia % 15 eta % 30 bitarteko jarraitzaile igoera du urtero snowboardak. Kirol hau hartzen ari den garrantziaz jabetzeko, 1998an munduan milioi t'erdi snowboard ohol izango direla jakitea besterik ez da. Zifra esanguratsua bada ere, kontuan izan behar da ohol horien ia erdia Estatu Batuak eta Kanadako snowboardzaleenak direla.

Nabarmena da, gero eta gehiagoren gogokoa da elurretako surfa ere deitua izan den kirol hau. Eskiatzaile batzuk eskia alboratu eta snowboardari ekin diote; eskizaleak diren gazteen artean hirutik batek horrela egin dute. Eta elur kirolean hasiberri askok, bi oholetakoari muzin egin eta zuzenean snowboardaren aukera egin du azkenaldion.

Egin, ia edozein elur pistetan egin daiteke snowboarda, baina hemen inguruan horretarako egokituriko pistak gutxi dira. Europako eski estazio askotan pisten % 35a snowboarderako egokituak dira. Estatu Batuetan pista zatiak ez,



Euskal Herri inguruan snowboarderako egokituriko pistak gutxi dira. Europako eski estazio askotan pisten % 35a snowboarderako egokituak dira.

snowboarderako eski estazio osoak dira.

Snowboard pistak gertuen San Martingo Harria, Gourette eta Astunen ditugu. Snowpark deritzon pista berezituak dituzte hauetan: jauziak, halfpipe deiturikoak (*skate* pistetan egon ohi diren U modukoak)... dira besteak beste snowboardzaleen gozamenarako. Hala ere, Snow-

boarden aritzen dena ez dago derrigorrez eski estazioetako pistei mugatua, kirol honetan bai baitu estilo libre, goi mendi, jauzi, lehia-keta, paseo eta bestelakoak egiteko aukera ere.

Eskiatzea baino errazagoa omen da snowboarda. *«Eskiatzen baino errazago ikasten da. Bost egunetako ikastaro batean, denbora berean eskiatzen*

*ikasten duzuna baino hobeto ikasten duzu snowboardean»*, horrela dio Igor Dominguezek.

Igor Dominguez hondarribiarra arestian aipatu ditugun gazteetako da. Eskia ezagutu gabe, zuzenean snowboardaren aukera egin zuen, eta egun Baqueira Bereten aritu ohi da snowboard ikastaroak ematen. Denboraldi bakoitzean



1998an munduan  
milioi t'erdi  
snowboard ohol  
izango dira; horien ia  
erdia Estatu Batuak eta  
Kanadako  
snowboardzaleenak

100-200 snowboard ikasle  
izan ohi dituzte.

Abantaila zuen Igorrek  
snowboarda ikasteko or-  
duan, berak aitortzen due-  
nez urtean zehar *skate* eta  
surfean aritzeak zenbait  
gauzetarako lagundu izan  
dio, «adibidez oreka man-  
tendu abal izateko bali-  
garria izan zait surfa eta  
*skatea jakitea. Baina hala  
ere, bata eta bestean erabil-  
tzen den teknikak ez du ze-  
rikusirik».*

## MAILA ONA EUSKAL HERRIAN

SNOWBOARDEN aritzen  
diren euskal herritarrek  
maila hona omen. Hori dio  
behintzat Igorrek. «Lebiaketa  
mailan Euskal Herriko  
jendea da onenetarikoak».  
Bera, Ballantines zirkuituan

## Estazioak ez dira eskiatzeko bakarrik

BI oholen gainean ari-  
tzeak, ezaguna dugun eski  
mota baino aukera gehia-  
go ere eskaintzen ditu.  
Ohikotik kanpokoaren bi-  
la-edo, hainbatek eskia-  
tzeko beste modu batzu-  
tara jo dute. Ugaritzen  
doaz, paraeski, *snowrafting*,  
*curving*, edo antze-  
koetara zaletu direnak.

Elur kirol berri  
hauetako gehienak elur-  
rretara egokitutako beste  
kirol modalitateak dira;  
surf eta windsurfaren on-  
dorio diren snowboarda  
eta elurretako windsurfa  
adibide.

Eski inguruko bitxi-  
keri gehientsuenekin ger-  
tatu ohi den modura, Es-  
tatu Batuetatik dator az-

keneko asmakizuna ere,  
*curvinga*. Snowboard eta  
ohiko eskiaren arteko na-  
hasketa da. Ohiko eskiak  
baino motzagoak erabili  
ohi dira (160 eta 190 zen-  
timetro bitartean), aurreko  
eta atzeko zati zabalago-  
ekin. Eski paraboliko  
hauei esker, jarraian bira-  
keta azkar eta ugariak egin  
daitezke. Abiadurazaleen  
neurria eginikoa da *cur-  
vinga*.

Paraeskia eta *snow-  
raftinga* zer diren hitzek  
beraiek esaten dute. Es-  
kiak jantzi,  
parapentea  
hartu bizka-  
rrean eta...  
salto. *Snow-  
raftinga* berriz,

ur gainean beharrean  
elurretan egin ohi den raf-  
tinga.

Monoeskiak snow-  
boardaren antzekoa badi-  
rudi ere bestelakoa da.  
Snowboarda zeharka bi-  
raketak eginez jaitsi ohi  
da, monoeskia aldiz zuzen  
goitik beheraino.

Batzuk berriak edo  
oholegileek asmatu-  
riko elur kirolak dira, baina be-  
rrindartzen ari diren antzi-  
nakoak ere badira: erra-  
ketak, zakurrek tiraturiko  
lerak...



Beste kirol modalitateei ohol egokiak gehitu  
eta elur kirolak sortu dira, paraeskia,  
*snowraftinga*, elurretako windsurfa...

2. postuaren jabe egin zen,  
eta une honetan Euskadiko  
txapelduna da.

Baina dena ezin izan  
ona, kirol honek ere badu  
bere desabantaila, eta ga-  
rrantzitsua gainera: garestia  
da. Eskia baino garestiagoa.  
Goitik beheraino egoki jan-  
tzi eta snowboard ohol ona  
eskuratzeko 200.000 pezeta  
(8000 libera) inguru behar  
dira. Honek badu bere arra-

zoia, izan ere  
gama apaleko  
material gutxi  
izan da orain  
arte kirol ho-  
netan.

Duela gu-  
txi hasi dira  
ekoizleak ohol, bota eta  
bestelako aukera zabala-  
goa, eta era berean merkea-  
goa eskaintzen. Snowboard-  
dak hartu duen indarrak,

surf, windsurf eta antzeko-  
rakoetako ohol industriari,  
snowboard oholak ere pro-  
duzituz urte osoan lan egi-  
teko parada eman die.



# IZADI

**ESKIRAKO GUZTIA DAUKAGU!**  
Eski alpinoa - Iraupen eskia  
mendiko eskia

**Ramon M° Lili, 2**  
Telf. eta Faxe: (943) 29 35 20  
20002 DONOSTIA

**1986 - 1996**  
**MENDIKO ESKIAN ESPEZIALIZATUAK**

-Eski fijazio eta botetan 20 modelu baino gehiago  
- Larru, kutxila, bastoi, teleskopio,  
palak, motxilak, emisore / errezeptore aparatuak,  
piolet eta krapoi arinak, arropa termikoak...  
bezalako osagarriak

**Gure bezero txartelarekin beherapen bereziak  
Informa zaitetz dendan bertan**



# Non eta zenbatean eskiatu: Pirinioetan aukera zabalena

Aurten ere, eski alpinoa izango da nagusi, baina iraupen eta mendiko eskia aukeratzen dutenak gero eta gehiago dira, salneurriak zertxobait igoko diren arren. Normalean astebururako joaten den eskiatzaileak aukera anitz ditu ostatua aurkitzeko, baina Euskal Herriko eskiatzaileak, Aragoako Candanchu eta Astunen biltzen dira nagusiki.



**E**SKIA beharraren ondorio moduan jaio zen duela gizaldi asko, negu gogorrean leku batetik bestera mugitzeko beharraren ondorioz. Gaur egun antzeko egoera da Europako iparraldean, baina beste herrietan, eskia aisi aukera da aspalditik. Europako zonalde horietan iraupen eta mendiko eskia dira nagusi, eta ez gure inguruan gertatzen denaren

antzerik, aukera nagusia eski alpinoko estazioek eskaintzen baitute.

Euskal Herrian ordea, iraupen eskiko estazioak bakarrik daude eta gehientsuenak, Pirinioen alboan daude (Irati, Issarbe, Belagoa, Abodi...). Aralar, Urbasa eta Andian ere egin daitezke iraupen eskia.

Aragoa eta Pirinio Garaietako eski estazioak izan dira azken urtetan euskal

eskiatzaileen jomuga, Aragoako Candanchu eta Astuneko eski estazioak nagusiki. Azken urteotan, Baqueira Beret, Formigal eta Boitaulleko estazioak ere izena hartu dute, Pirinioetako eskaintzari dagokionean behintzat.

Normalean egun bat edo asteburu osorako joaten den eskiatzaileak aukeratzeko dituzten Frantziako Pirinioetako estazioak, batez

ere hamarkada honen hasieraz geroztik. Bertaraino iristeko Aragoako estazioetaraino iristeko baino denbora gutxiago behar da gainera. Añamendiren Iparaldeko aurpegian Arette-San Martingo Harria estazioaren adibidea adierazgarria da. Euskal Herriko mugatik gertuen dagoena da eta Donostia edo Iruñatik bi ordu eskaseko denbora epean iritsi daitezke.

Pirinioetatik kanpora joateko ohitura handirik ez dago euskal eskiatzaileen artean. Kantauriko Mendikatean dauden Alto Campoo, San Isidro eta Pajares estazioak, zenbait bizkaitarren aukera izan ohi da, Errioxan dagoen Valdezcaray eski estazioan ere antzerakoa gertatu ohi da, baina bertaratzen direnen kopurua benetan murrizta da. Madril eta Andaluziako eski estazioek ez dute ia euskal eskiatzaileen bisitarik jasotzen.

Europako erdialdekoa da, eskaintza zabalena eta ia bakarra kasik. Alpeetan, eski estazioak nonahi hedatzen dira eta egutegiak astebete edo zubi luze baten aukera eskaintzen duenean, ez dira gutxi Frantzia, Suitza, Italia edo Austriako eski es-





tazioetaraino joaten diren euskal eskiatzaileak. Egutegiak hori egiteko baimentzen dituen astebeteko oporrak tamalez eskasak izaten dira.

### MERKEENETIK GARESTIENERA

BIDAI agentzietan informazio gutxi dute oraindik, baina salneurriak, aurreko urteetakoena nahiko antzekoak izango dira. Igoera egongo da, baina % 4 edo % 5eko igoera, eskiaren inguruko arlo guztietan: bidaia, igogailua eta ostatu egun bategatik. Pasa den urtean, egun batetarako igogailuen salneurriak 2.500 eta 4.100 pezeta (100 eta 165 libera) artekoak ziren. Merkeen artean, Arette, Gourette, Luz Ardiden eta Bareges eski estazioak nabarmentzen dira eta garestiena, zalantzarik gabe, Lleidan dagoen Baqueira Beret estazioa. Garestiena izan



Hasiberrientzako eski ikastaroa, bi orduko 5.000 pezeta inguru izan ohi da. Hobetzeko izan ohi diren ikastaroak ordea, garestiagoak dira.

arren ordea, eski estazio hau Pirinīo guztiko onena da urte askotan eskiatu izan dutenen iritziaren arabera, bai bere aukera zabalagaitik, baita bertako elurraren kalitateagaitik ere.

tateagaitik ere.

Iraupen eskian, tasak askoz ere merkeagoak dira, 200 eta 400 pezeta artekoak izan ohi dira. Tasa hau, basoetan zehar makina berezi batek arrastoa egiteagaitik eta bidea balizatzearen truke ordaindu behar da. Mendiko eskian, berriz, ez da inolako tasarik ordaindu behar, mendia bere berezko negu itxurarekin zeharkatzen delako alde batetik bestera.

Eskiatzaile asko, bestalde, bere kasa joaten dira eskiatzera. Igogailua, berdin kostatzen da autoan joanez gero. Ostatua ziurtatzerako garaian berriz, hobe da bidaia agentzi batetara joatea, modu horretan diru gutxiago gastatu ohi baita. Adibide moduan, Jacan, 3 izarretako hotelean, gaua pasatzeak gosaria barne, 5.050 pezetako (200 libera) salneurria du. Apartamendua merkeagoa izan ohi da, batez ere lau

edo bost pertsonentzat baldin bada. Salneurriaren merketasunak, erosotasunaren gutxitzean du kontrapuntua, baina ez beti.

Asteburu bateko irte-naldirako, bederatzi edo hamar mila pezeta inguru beharko dira aurten. Hauek, bidaia, igogailua, aseguria eta ostatua ordaintzeko balio dute. Astebeterako irte-naldiak, 50.000 pezetatik gora balio dute, bai hotelean, baita apartamenduan ere. Alpeetara joan nahi ba-



Pasa den urtean, egun batetarako igogailuen salneurriak 2.500 eta 4.100 pezeta artekoak ziren.

---

Merkeen artean, Arette, Gourette, Luz Ardiden eta Bareges eski estazioak dira eta garestiena zalantzarik gabe Baqueira Beret estazioa

---



Duela gutxi, orkatilako lesioak ziren ohikoenak, egun, eski boten tamaina handitzean, lesio gune nagusiena belauna da

da, poltsikoa bero eduki behar, astebete igarotzeak 100.000 (2.500 libera) pezeta inguru balio baitu, gutxienez.

### LESIOAK DENENTZAKO

HOTELA, ostatua edota pista hobeago nahiz txarragoak, ez dira salbuespen izango estazioetan lesioren bat izateko. Lesioak ohikoak izaten dira eta ez hasiberrien artean bakarrik. Duela urte batzuk, orkatileko lesioak izan ohi ziren gehiengo, baina gaur egun, lesio gune nagusiena belauna bihurtu da, eskiko boten tamaina handitu egin delako.

Zaintiratuak askotan gertatu ohi dira, baina hezur hausdurak eta hilabete askotako osasuntze epea ere



Egutegiak astebete edo zubi luze baten aukera eskaintzen duenean, ez dira gutxi Frantzia, Suitza, Italia edo Austriako eski estazioetaraino joaten diren euskal eskiatzaileak.

bai. Lesio askok, 3 eta 6 hilabete arteko epea behar dute guztiz osatzeko. Ahal den arreta gehiena jarri behar da beraz.


Haserako egunetan, monitore batekin hastea komenigarria da, jakintza

oinarrizkoenak ezagutzeko behintzat. Monitoreek, orduka kobratzen dute eta hasierako ikastaroak, (bi ordukoak) 5.000 pezeta (200 libera) inguru kostatzen dira. Aurrerago ere badira ikastaro bereziak bakoitzak

duen eski maila hobetzeko, baina hauek hasierako ikastaroak baino garestiagoak dira, hau da, 3.000 pezeta inguru (120 libera) ordubetegatik. Ikastaroak, nahi adina jaso daitezke, ezin da esan birekin edo laurekin nahikoa dela. Bakoitzak, behar duen adina ikastaro jasotzen ditu, bere poltsikoak baimentzen baldin badio behintzat.

Eskiatu ahal izateko, bestalde, ez da egoera fisiko bikaina edukitzea beharrezkoa, baina txarra ere ez da komenigarria. Eskia, nekeza da oso, batez ere mendikoa eta iraupeneko. Eskia egitea beste edozein kirol egitea bezain gogorra gerta dakiguke gure egoera fisikoa ona ez bada.

Duela hamarkada bat, 'aberatsen' kirola omen zen eskia, baina gaur egun, guztion eskura dagoen beste aukera da prezioek izan duten jaitsierari esker. Kirol ikusgarria da bere arlo guztietan. Abiadura handia eski alpinoan, lasaitasun eta ixiltasun sentimendua iraupen eskian. Mendiko eskiarekin berriz, antzina bailara batek beste batera nola igarotzen ziren jakingo dugu. Hozta eta elurra iritsi dira mendi tontorretara eta pistetako elurra zuen zain dago.



- OSTATU - JATETXEA
- BAINUDUN LOGELAK,
- BEREZIKI PRESTATUAK
- FAMILIENTZAKO ETA
- TALDEENTZAKO
- MENDIKO TXIRRINDEN ALOKAIRUA


Tel. (948) 89 01 84  
31680 OTXAGABIA

### BESTE AKTIBITATEAK

Haurrentzako udalekuak  
fondoko eskiaren ikastaroak neguan  
mendi ibilaldiak irailean  
ibilaldiak oinez eta mendiko txirrindan  
ekintza aritzeko asteak

ARABA eta Bizkaiko

# Bertsolari Bertoketa 96



LEGUTIOtik-BILBORa

URRIAREN 27tik - ABENDUAREN 22ra



**BBK**

**Bilbao Bizkaia Kutxa**

# Gosaria (eta abar) Durangon

**GIBELETIK** jaurtikitako azkona bezala iritsi zaigu negua, oharkabean, inork gonbite ofizialik egin ez badio ere. «Neguko arropak» izeneko kaxeie uste baino lehenago kendu behar izan diegu hautsa. Ez da, haatik, metereologiaren 'hankasartzea' izan. Komunikabideei so eginda ohartu naiz neguari gaztigu Gerediaga elkarteak emanen ziola: «Aizan, Mari, zuritu itzan Gorbea, Mugarra eta hire etxe Anboto; gonbidatu eta bisitari piloia zatorkigun etxera, Durangora».

Halaxe joango baikara, euskaldunok, eskutik helduta: gurasoak, ilobak, amama, katua eta kaiola hartuta, euskal kulturaren *zanbulla* egitera. Kultur eguratsean pixkat ibili, 'euskal' giro horren kontra amiñi bat igurtzi -ea zertxobait eransten zaigun-, ez dauzkagun diruak gastatu eta, inportanteena, baxoerdi batzuk hartu ondoren lagunei *han* izan garela kontatzera. «Izan nintzen Durangon, noski, urtero joaten naiz; urlia eta

sandia ikusi nituen, eta berendiak liburu sinatu zidan...». Liturgia.

**ESTANDEAN** pinguinoen giroan egonen direnek esanen dute, agian, ibili baietz baina, aukeran, gastatu gutxi egingen dela. Hara ikusi eta ikusia izatera doala kristaua, ez behintzat patrikei amaraunak garbitzera! Litekeena. Kontuan har dezatela, ordea, beraien aldetik ez dugula 'pizgarri' gehiegirik jasotzen. Amuak anitz botatzen dituzte, tretza luzetan, baina beita arruntez. Han dotore eta pollit aurkeztuko dizkiguten produktu berberak izanen baititugu biharamunean dendan, prezio berean, nahiz ez hain eder. Hortaz, hara joaten gastatzen dugunak merezi du liturgiaren aldetik, mendi elurtuen magalean lagunekin egotearen aldetik. Horretaz gain, artean kobratu gabeko Gabonetako paga liburu-diskoetan gastatzea nahi baldin badute, feriak produktuen aldetik erakar gai-

tzala nahi badute, garbi dago: merkatu ditzatela prezioak, egin dezatela deskontua egun horietan. Erosiko ditugu bestela dendan.

Eta ez dezatela negar larregi egin argitaldari eta ekoizleek. Salmenta zuzena da Durangokoa, bitartekariak gabekoa. Hots, kentzeko gutxi daukate hor. Askoren sustengu bakarretakoa izanen da Durangoko Azoka, duda barik, baina

**Artean kobratu gabeko Gabonetako paga liburu-diskoetan gastatzea nahi baldin badute, garbi dago: merkatu ditzatela prezioak**

Joan den ostiralean aurkeztu zuen bere burua Euskalgintza Elkarlanean Fundazioak. Elkar eta Zabaltzen eta bere inguruko talde guztien etekin ekonomikoak euskalgintza eta kulturagintza zuzpertzeko helburu duen fundaziora bideratuko direla esan zuten. «Elkargune bateratzaile eta dinamizatzailea» izatea dute helburu. (Argazkia: Jagoba Manterola).



zerbait merezi du hara doanak. Osterantzean bisitari da, ez bezero.

**GURE** komunikabideak Urkiola aldera begira jarriak dira, beraz. Eta ezinbestean. Udako basamortutik aterata, udazkenean Durangorako produktuak gurdika datoz, denei arreta ezin eskainirik. Baina eskaini egin behar, Durangokoa geure geurea baita. Erdarazko produktua ugaria den arren, gure unibertsoko planeta da, inondik ere, Azoka. Euskararen edozein zirkuitutik at dabilenari arrotza zaio. Egia esatera, hala jarrai dezan nahiago -ez batzuentzat arrotz, geure izaten baizik-. Gure literatur eta musika produkzioa hedatu eta erdarazko merkatuetara atera behar dugunik zalantzarik ez dut, eta zubiak bat bestearen aldamenen egin behar ditugu. Alta, utz diezaiogun gorputzari lagunartean bainutxo hartzen; gero kanpora babesturik joateko. Hotzak akabatzen eta prezio aldetik berdinean izanda ere, Durangoko Azokak ere euskalduntzen baikaitu.

**FUNDATZEAZ** aspaldi dakigu euskaldunok. Loiolako Inaziok, konkista eta bestelako golfokerien ondoren, horixe egin baitzuen: «fundatu».

Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa sortu dutenen asmoa bestelakoa da, bistan denez. Diruak euskalgintzan, kulturen inbertitzeko tresna sortu dute. Abiapuntua ez da txarra, helburu zehatzik aipatu ez bada ere (sustatu, garatu, euskaldun guztion topagune... betiko abstraktoan oraingoz), dirua dagoen seinale baita fundazioa sortu izana. Eki-men pribatutik, gainera. Ongi etorria, oraingoz, jaio berriari. Fundatu egin dute. Orain «armatu» egin behar.

(Oharra: gure bizitza soziala hedatuz doa. Euskaldunon topaguneak tabernak eta mendia zirela uste nuen nik. Ikastolen eta abarren festak etorri asmatu genituen gero. Orain fundazioak egiten ditugu. Europartzen ari gara, zalantzarik ez dago).

**MIKEL ELORZA**

## UHAITZANDIKO URAZ BUSTI

### Andre Malraux

**E****RREPUBLIKAKO** gizon handien 'Pantheon' delakoan sartu digute beraz frantses idazle handia. Inpresio bitxi bat uzten dit gertakizun horrek. Ez ote dute han fosilizatuko, miresten zituen Egiptoko jaunak bezala? Ez zen bakuna Malraux, ez zen ere geldi ez geldoa. Eskualde asko zuen, aurpegi oso mugikorra, eta mintzo zelarik elkarriketa batean, esku batez atxiki behar zuen, bestea mirua bezala zirurikan ari zitzaiola.

Gainera nahiko arina iduritu zait hor agertu den liturgia: urrun ginauden gizon horrek duela urte andana bat Jean Moulin, Erresistentziako buruari, hor berean egin zion harrera epikotik. «Le Chant des Partisans» sonatua ere orduan hain solemne eta hunkigarri durundatu zutena, atabal astunen laguntzaz, hilen pausua bezala. oraikoa abestu dute kasik alaiki, eta zinez desegokia iduritu zait.

**EGIA** da denborarekin hauts bilakatzen direla hilen gorpuak, bai eta naski haiez ditugun oroitzapenak. Halere frustratua senditzen naiz Malraux zenarekiko, epikoa baitzen hura. Baina ez dakit zein frantses idazlek izkiriatu izan duen: frantsesak ez du bere burua epikoa. Aldiz epopeiakaria zen Malraux: bere bizitzan (1901-1976), hospasei epopeia bizi izan ditu, eta bere idazle obran itxuraldatuz ospatu.

Halere, ospakizun horrek ondorio on bat du: asko aipatu dela Malraux bere begitarte desberdinekin. Horri esker, ezagutzen ez nion bat azaldu zait: Vietnamen bere gaztaroan erakutsi zuena. Ezen 22-23 urteetan, hango jendearen alde jeiki zen, kolonialismoaren aurka, 'L'Indochine' delako kazeta bat agertuz. Meritu izigarria ukan zuen hor, garai hartako egoera ikusten dugularik, munduko lehen gerlaren ondoko urteetan baitzen, frantziar oilarra bere gorenean zebilelarik itsaso eta lurren zehar. Kazeta debekatu zioten, bistan dena. Bigarren bat atera zuen, titulua pixka bat aldatuz, eta hura ere hetsi zioten, alabaina.

**EZIN** ditut gogoan ditudan guziak erran zutabe labur honetan. Beraz adar nagusiei lotuko natzaie bi hitzez. Ikasle nintzela, duela 40 urte, asko maitatu nituen Txinako iraultzez idatzitako bi elaberriak. Baina duela 30 urte markatu ninduen izan zen 36-eko gerlaz ondu zuen «L'Espoir» eta, oroz gaintik, hori da niretzat Malraux: bere bizia jokoan sartuz, behardunen alde idatzi duena. Horrek ez ditu ezabatzen, bistan dena, idazle eta ekintza gizon handi horren beste aurpegiak, bereziki artearen erran-nahiaz jardun eta izkiriatu duena.



JEAN LOUIS DAVANT

## TXUTXU - MUTXUKA

## UNED-EN «SERTA» POESIA ALDIZKARIA EUSKARAZ

UNEDek sortu duen poesia aldizkaria zortzi hizkuntzatan kaleratuko da, tartean euskara dagoela. Sormen, kritika eta gogoeta aldizkaria izango da eta argitaratuko den hizkuntza guztietako herrietako poesiak irakurri ahal izango dira. Euskaraz bezala, katalanez, galegoz, espainieraz, frantsesez, portugesez, italieraz eta errumanieraz kaleratuko da «Serta». Urtean bi aldiz kaleratuko da aldizkaria eta egituraz mardula da oso: lehen aleak 427 orri ditu.


## NOR - NORI - NOR K

**PEDRO M. ETXENIKE**

saritu dute ikerkuntzako Euskadi Sariarekin. Eusko Jaurlaritzak lehen aldiz eman duen saria sei milioi pezetakoa da eta ikerkuntzan egindako lanak goraiatu nahi ditu. Nafarrak «lan talde oso baten lana» goraiatu zuen saria jaso zuen unean eta «sariarekin lanean jarraitzeko arrazoi nahiko» dituela adierazi zuen. Euskal Herriko Unibertsitateko Kimika fakultateko irakasle da Etxenike ●

**MICAELA PORTILLARI**

eman diote aurtengo Manuel Lekuona saria. Eusko Ikaskuntzaren sari hau jasotzen duen lehen emakumea da Portillas. Gasteizen jaiotako historialari honek Arabako historia eta artea bildu du sei liburutan. Lan horrek ekarri dio saria. Lehendik ere hamaika izendapen jasoak ditu Portillak, tartean, EHuko *Doctor Honoris Causa* titulua eta Euskal Herriko arkitekto kolegioko ohorezko bazkidea da ●

**VICENTE LARREAK**

bere eskulturarik garrantzitsuenak erakusgai jarri ditu Bilboko Amaste aretoan. Abenduaren 13a arte zabalik egongo den erakusketan hiru lan berri aurkeztu ditu. Erakusketako berrikuntza nagusia, Derion jarritako «Makila» eskultura nola egin zuen azaltzen duen bideoa da, 20 minutuko iraupena duena. Haizeak mugituko duen eskultura prestatzen ari da egun Larrea ●

## T E L L A K

## ■ EUSKARAZKO FILMEAK ARETOETAN

Urte bukaeran hasi eta hurrengo urte osoan zehar Gipuzkoako zine-aretoetan euskarazko filmak ikusi ahal izango dira. Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ekoizle eta aretoekin akordioa sinatu dute atzerriko filmak bikoiztu eta areto komertzialetan euskaraz eman daitezen. Euskara zinemagintzan normaltzeko ahaleginetan Arabako eta Bizkaiko Aldundiek ere parte hartzea aurrizkusten da. Areto komertzialetan filmak eman ondoren, instituzioen esku dauden kultur etxe eta bestelako aretoetan zabalduko dira. Euskaratuko diren filmak berrikuntzak eta gizartearen arlo ezberdinetakoak izango dira.

## ■ ARANZADIREN LIBURUTEGIA ZORROAGAN


Euskal Herriko Unibertsitatearen fakultateak egon ziren Zorroagako eraikinetan Aranzadi Zientzia elkarteak liburutegia jarriko du. Era honetan, jendearentzat zabalik egongo dira elkarte honek dituen 15.000 liburu zein material arkeologiko eta etnografikoak. Gipuzkoako Aldundiak hamar urtetarako utziko dio eraikina Aranzadi elkarteari. San Telmo museoa du egun dokumentazio eta material guztia Aranzadik, baina leku eskasiak jendeak liburu guztiak eskura ez edukitzea eta ez ezagutzea eragin du. Aste Santurako San Telmo museoko egoitza utzi eta liburutegi berria zabalik egongo da.

# Euskararen aurrekontuek gora egin dute EAEn, baina itzalekin

**E**usko Legebiltzarrean eztabaidagai dira 1997rako aurrekontuak. Euskararentzat aurrikusitako dirua azertu dugu, gora egin duen kopuruaren atzean aletzen den hizkuntz politika errepasatuz.

EUSKO Legebiltzarrean eztabaidagai dute Eusko Jaurlaritzak 1997rako aurkeztutako aurrekontuen zirriborroa. Orotara 709.878 milioi pezeta (28.395 milioi libera inguru) xahutzeko asmoa agertu du hiruko gobernuak, eta euskararen beharrei 10.655 milioi pezetarekin (kopuru osoaren (% 1,50 beraz) erantzutekoa.

Hizkuntz politika ardatz estrategiko gisa aurkeztu du Mari Karmen Garmendia Kultura sailburuak, eta izak



**Euskararen aurrekontuetatik zatirik handiena (5.848 milioi pezeta) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailera bideratuko da; EHUren euskalduntzeak ordea, beherakada nozituko du.**

kopuruekin alderatuz gero, Kultura Saileko diruek behera egin badute ere, euskararenek, aitzitik, gora egin dutela (aurten baino % 3,31 gehiago) azpimarratu du. Ardatz honen jira-biran erabilera lehenestea hartu du helburutzat.

Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerkuntza Saitetik zuzenduko litzateke dirurik

gehien euskararentzat, 5.848 milioi pezeta (aurten baino % 2,78 gehiago). Hiru ataletan banaturik: Hezkuntzaren euskalduntzerako 4.568 milioi pezeta xahutuko lirateke; dirulaguntzetan 1.080 milioi pezeta; eta azkenez, EHUren euskalduntzeari 200 milioi pezeta eskaini zaizkio (aurten baino % 13,04 gutxiago).

Kultura Sailan 3.538 milioi pezeta (aurten baino % 4,92 gehiago) aurrikusten dira hizkuntz politikarako. Partida handiena Helduen Alfabetatze Berreuskalduntzerako Erakundeak jasoko luke, 2.716 milioi pezeta guttira, horietarik 1.626 (aurten baino % 7,97 gehiago) eskalategi homologatu eta kultur elkarteei zuzenduak.

## Josune Ariztondo: «Erabilerarekin lotuak dauden programek diru gehiago izango dute»

**1997 euskararen erabilera urtea izango dela esan duzue, zertan igarriko da bori?**

Batzuk aipatzekotan, Antzuola eta Bergarako egitasmo pilotuak ezin ahaztu. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera egindako lanari esker, egitasmo pilotu hau Gipuzkoako udalerrietara hedatuko da. Martxan da helburu honekin Gipuzkoako udalerririk gehienak biltzen dituen lan batzordea. Bestalde, EAEko 18 udalek

egitasmoan parte hartzea eskatuko dute.

Lan batzorde honen bidez beste bi egitasmo hedatuko dira Gipuzkoan: «Kirolak Euskaraz» esperientzia, eta «Merkataritza eta Zerbitzuak Euskaraz», Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko herri euskadunetan lantzen ari dena.

Laster kalean izango da Explorer izeneko Interneten aritzeko programaren euskarazko bertsioa. Gainera, estreinekoz Teknologia Berriak ataletik egi-

tasmoak laguntzeko aukera ireki dugu.

Funtzionarioen Hizkuntz Normalizaziorako 2. Plangintzaldian erabilerak garrantzia handia izango du. Azkenek, Euskararen Aholku Batzordean batzorde berezi bat osatu da erabilera hausnartu eta proposamenak lantzeko.

**Hizkuntz Politikaren aurrekontuetan igoera izan dela azpimarratu duzue; zeren mesedetan izango da igoera?**

Erabilerarekin lotuak dauden programak diru gehiago izango dute. Hala ere, ondo dakigu dirua ez dela guztia eta -bestalde- dirua ez dela inoiz gehiegi izaten. Gogoia eta elkarlana ezinbestekoak dira. Gu elkarlanean aritzeko gogoz beteta gaude.



**Josune Ariztondo Hizkuntz Politikako Zuzendari Nagusiak esan digunez, «dirua ez da inoiz gehiegi izaten. Edozein kasutan, diruarekin batera gogoia eta elkarlana ezinbestekoak dira».** (A.: Alberto Elozegi).

Euskaltegi homologatuek iaz baino 88 milioi pezeta gehiago jasoko lituzkete.

Erakunde sozialak 483 milioi pezetaz (aurten baino % 6,1 gehiago) laguntzeko asmoa agertu du Kultura Sailak. «Euskaldunon Egunkaria» ez du, aurtengoan legez, izendatutako partidarik izango eta euskal prentsaren

185 milioi pezetako zakutik jasoko lituzke bereak. 44 milioi pezeta zehaztu dira euskarazko argitalpenentzat eta 24 milioi pezetako partida berria proposatzen da teknologia berrien zabal-kunderako (euskara hutsean eginiko tresna eta produktu informatikoak -software, multimedia- sortu eta era berean euskararen erabilera Interneten bidez zabaltzeko). Euskaltzaindiak 96 milioi pezeta jasoko lituzke 1997ko jardura babesteko eta 9,5 milioi pezeta

zorra kitatzen laguntzeko. Udaletxeetan euskararen normalizazio planetarako 47 milioi pezeta eta lan munduan xede berean aurreratzeko 9,1 milioi pezeta aipatzen dira aurrekontuen zirriborroan. Azkenik, Euskararen Aholku Batzordea 18 milioi pezetaz ornituko litzateke bere zereginetarako.


Hazienda eta Administrazio Publikoaren Sailean 1.269 milioi pezeta gordeko lirateke euskararentzat (aurten baino % 1,36 gehiago), horietatik 499 Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari begira (aurten baino % 13,97 gutxiago). HAEek udaletarako zuzentzen duen dirulaguntzen programak (zeina euskara ikastaroetan parte hartzen duten funtzionarioen ordezkoen kontratazioak babesteko baliatzen den) nozitu luke beherakadarik nabarmenena. Sail honen baitan HABEk jasoko luke gainerakoa, 770 milioi pezeta (aurten baino % 14,58 gehiago), abiatzear den Funtzionarioen Hizkuntz Normalizaziorako Bigarren Plangintzaldiari begira, hots, datorren urtean ikas prozesuan parte hartzera sar daitezkeen mila bat funtzionario berriri erantzun asmoz.

### **Aurrerapausoak bai, baina...**

EUSKAL Kulturaren Batzarraren izenean Olatz Osak azpimarratu digunez «*aurrerapausoak badira*» datorren urterako aurrekontuetan, «*azken urteotan euskaltzaren alorrean egiten*

■ **709.878 milioi pezetako aurrekontuetatik 10.655 milioi pezeta gorde zaizkio euskarari, % 1,50 beraz**





**Euskalgintzarako diruaren parte bat teknologia berrietarako izango da eta euskal prentsa partida bakarretik elikatuko da.**

ari den presio sozialak eraginda. Hala ere, hizkuntz politikara zuzentzen den diru kopurua ez dela nahikoa aldarrikatu digu: «Aurrekontu orokorrarekin alde-ratuta -% 1,50- ikusten da zer suposatzen duen».

### Hainbat ataletan itzalguneak

EKBk argudiatzen duenez bestalde, euskararen aurrekontuetan eman den igoera aztertzeko orduan kontuan hartu behar da Kontsumorako Prezioen Indizearena ere, eta honen arabera, «1996ko 10.314 milioi pezetak egungo 10.675 milioi pezeta lirareteke. Errealiki beraz Eusko Jaurlaritzak euskararentzat aurrikusitakoa % 0,18an jaitsi da. 1991tik berriz, errealiki % 21,55 igo da kopurua, bezkuntzaren euskalduntzerako bideratutako aurrekontuen igoeraren eraginez».

Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerkuntza Sailari dagokionez, azpimarragarria da aurtengo aurrekontuetan mila milioi pezeta pasatxoren igoera ezagutu

ondoren, datorren urtean ere ezagutuko duena, 158 milioi pezetakoa. Itzalgunerik bada, ordea, Sail honen estalpean, EHU euskalduntzeko kopuruak behera egin baitu 30 milioi pezetatan, Miren Azkaratek zuzentzen duen errektoreordetza erditik ukituz. Honi buruz galdetuta, «datuon berri ez dut» erantzun digu.

Euskal prentsarentzat bideratuko diren laguntzek ere sor dezakete kezkarik, produktu guztiak —Euskaldunon Egunkaria» barne— 185 milioi pezetako zaku berean sartzen direla jakinik eta aldizkarien kopuruak gora egin badu ere partida bere horretan mantentzen dela ikusirik.

Zer esanik ez liburugintzari zuzendutako dirulaguntzei erreparatu gero: 44 milioi pezeta aurrikasi dira, azken hiru urteotan legez. Aurten Euskal Editoreen Elkarteak Kultura Sailarekin izandako haserrea eta gero, ez da seinale ona zifra bere horretan mantentzea.

**J.J. PETRIKORENA**

# La Casa del Café

— Juan Triunfo S.A. —  
DONOSTIA

Eleberri eta poesia sariak eraman ditu Luis Mari Mujikak aurtengo Irun Sarietan

# «Euskaldungo zati handiena amorfoa da, ez da euskararen arazoez ohartu»

**M**ilioi pezeta pasatxoko sariak eman arren, inoiz baino idazlan gutxiago iritsi dira aurten Irunera. Luis Mari Mujikak, baina, aspaldi egin zuen sarien hautua, «literaturgintza hiru idazleri begira egonik bide objetiboena delako». Gustura da, «Bidean ihes» eleberria eta «Nire soneto beroak» saritu dizkiotelako. Pena du, ordea, argitaletxeak, ETB, irakasleak eta Eusko Jaurlaritzak ez dituelako idazleen alde gehiago egiten ikusten.

## Zorionak basteko. Sariak espero al zenituen?

Bi ez behintzat. Poesiakoa agian izan zitekeela baina... Duela 10 urte eginiko poemak ziren. Poema mordoak ditut, gehiena poesia neurtuan eta argitaratu gabe. 1982an Aire neurtuak-ekin Lizardi saria eskuratu nuen eta harrezkero ez nuen ezer argitaratu poesian.

## Eleberrian irabaztea oso zaila ere zitzazun, zurea bakarrik aurkeztu ondoren.

Ez eta bai. Epaimahaia oso egoera zailean izaten da, bakarria izanik oso erraz eman dezake desertsu. Arriskutsua da eta penagarria noski.

## Irungoekin gertatu dena nola ulertu?

Gertatu dena inolaz ere ez da uztartzen gaurko literatur

produktzioarekin. 400 urtetan euskaraz 111 original egin genituen eta berrargitalpenak kontuan hartuta 600era ez ziren iritsiko; iaz, urte bakarrean, 1100 atera ziren. Herri honek zama bada baina gutxiengo batek ikaragarritzko lana egiten du militantzian gure kultura aurrera ateratzeko.

## Zer gutxiengoz ari zara?

Ez dut esango politikoki alderdi bati atxekita dagoenik baina ehuneko 15ak hartzen ditu bere gain herri honen borroka guztiak. Aldiz, bada euskaldungo handi bat, oraindik zoritxarrez amor-

foa dena eta ez dena jabetzen euskarak aurrera atera behar duela. Horrek guztiak desanimatu egiten du idazlea, nahiz eta sariak diru aldetik txukunak izan.

## Erakundeei, argitaletxei, nori diozu eskatzeko?

Erakundeek diru horniketa egin arren, ondorengo hedadura kaskarra izan ohi da. Egoera hau, euskal idazleen munduak daukan infernuaren ondorio ere bada. Gure hizkuntza ez-romanikoa izanik, besteek ez ulertzea muga handia da. Hiruzpalau egile dira zortea dutenak,

haiei lanak itzultzen zaizkie baina besteak ezezaguntsean gelditzen dira.

Horren aurrean nik aukera bat egin dut: ahal badut sarietara aurkeztuko dut nere burua; gaurko egoera ikusirik, iruditzen zait objektiboena hauek direla. Euskal kritika partidista samarra izan liteke eta erosoa ere bai.

## Zergatik diozu bori?

Erraza delako egile bat hartu eta hari segitzea. Bestalde, ezagutzen ditut hainbat ikastola urtetan egile beraren bueltan jarraitzen dutenak. Irakasle alferrak ditugu eta izugarritzko kaltea egiten diote idazleari. ETB eta Eusko Jaurlaritzak ere ez daramate politika ona. Salbuespenak badira, Goenkale eta abar, baina eleberri eder askoak baditugu atalka ateratzeko. Hala ere nahiago amerikadak hartu, pilota bota eta kitto.

## Kexuak horiek, eta konponbideak?

Erakundeek argitaletxe onekin koedizioak egitea... Gure literatura gehiago atera behar da kanpora; itzulpe-


«Barkaziorik ez du Guggenheimek 20 mila milioi eramatea eta beste arloekin merke zehurreran ibiltzea»

nen politika ere beharko luke indartu. Euskadi Sariak urtero zirenak bi urtekoak bihurtu zituzten. Ez du bar-kaziorik Guggenheimek 20 mila milioi eramatea eta beste arloekin merke zur-rean ibiltzea.

**«Bidean ihes» da eleberri saritua, datorren urtean argitaratuko dena.**

Urte osoan egon naiz horrekin bakarrik. Aurten 60 urte bete dira Espainiako Gerra amaitu zenetik eta hori buruan izan nuen, horrekin batera brigadistena... Figura horri jarri nuen hasieratik: jatorri euskalduna eta kanpoan dagoen brigadista: 40 urte igaro dira Argentinara joan zela. Sumatzen duenean Penintsulan Fronte Popularra irabazten ari dela Euskal Herrian gertatzen ari denaz pentsatzen du eta presente egon nahi du, euskaldunak berezita geldituko direla sumatzen baitu.

Fidel da hori, eta horrekin batera pertsonaia nagusiak Donostiako neska anarkista CNTkoa, eta bahituta hartzen duten fraile inozo bat dira. Ez nuen gerra kronika soila egin nahi; gure herriaren historia ere lotu nahi nuen, gerrate karlistarena... **Poesiakoan, «Nire soneto beroak» en ura eta lurra dira elementu nagusiak.**



**Sarien hautua egin du, «gaur egun hori delako aukera objetiboena». (Arg.: Garikoitz Garaialde).**

Telurikoa. Ura eta lurrari ezezik, elementu primigenioei, kobetako hormairudiei sonetoak egin dizkiet; baita baserriko golde abandonatu bati eta kutxa zizeldu bati ere. 30 soneto dira baina ingurumari guztia poesia soltean dago.

**Behin baino gehiago salatu duzu poeta asko zabarrak direla metri-kari dagokionez.**

Eta berriz salatu nahi dut. Euskara beste hizkuntzak baino jasoagoa da, diszipli-

na estetikoak dauka, deklinabidearen ahalbideak... Sistematikoki hortik aldegittea erosokeri merkea iruditzen zaidalako.

**Beste arloetan ere disziplina eskatzen duzu?**

Seminarioan ibilia, eta gero apaiz ere bai... Seminarioan disziplina erakutsi ziguten, ikaragarri gainera. Hori eskertzen dut. Gogoia eduki ala ez, idatzi egiten dut.

**Seminarioak bestelako arrastorik utzi dizu?**

Nire eleberrietan indar

handia dute mundu ruralak eta erlijioak. Mundu hori egosteko oso ondo etorri zait alde batetik Lizartzan jaiotzea, eta bestetik seminariotik pasatzea. Atsegin dut baserri giro hori.

**Lurra da irauten duen gauza bakarra, diote.**

Eta haren azpira sartzen gaituzte. Niri gustatuko litzaidake lurpean eta lizar bat alboan dudala ehorztea, te-lulira jaitsi eta han usteltzea.

MAITE ARTOLA



# ORDIZIA

- ✓ Liburugintzako azken berriak eta euskal diskorik hoberenak
- ✓ Azaroaren 26tik abenduaren 1era
- ✓ Aita Barandiaran plazan
- ✓ % 10eko beherapena

**BIZI IRAKURRIZ**

EUSKADIKO LIBURU AZOKEN BATZORDEA

ORAIN ARGIA REN HARPIDEDUN EGINEZ GERO



HAUETAKO  
OPARIREN BAT  
ESKURATUKO DUZU  
DOHAINIK

ANTTON OLARIAGA

Alukiss



BASOTIK EDANEZ

IDAZILEEN PIZTIARIOA BARRUAN

erein

ALUKISS-BASOTIK EDANEZ

ANTTON OLARIAGA



POSTERRA (63 x 43): GERRA AURREAN ARGIA REN HARPIDEDUN  
ZEN FAMILIA BAT SUPAZTER ONDOAN.

KIOSKOAN BAINO  
%20a MERKEAGO

ARGIA REN HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ



Telefonoz ere egin  
dezakezu harpidetza  
zenbaki honetara deituz  
9etatik 1era eta  
3retatik 7etara

943 - 37 15 45

ANTTON OLARIAGAREN  
ALUKISS - BASOTIK EDANEZ

ARGIA REN POSTERRA

HARPIDETZA TXARTELA

☎ (943) 37 15 45

FAXA: (943) 36 10 48

IZENA \_\_\_\_\_ 1. DEITURA \_\_\_\_\_

2. DEITURA \_\_\_\_\_ TELF. \_\_\_\_\_

HELBIDEA \_\_\_\_\_ POSTA KODEA \_\_\_\_\_

HERRIA \_\_\_\_\_ HERRIALDEA \_\_\_\_\_

BANKU EDO AURREZKI KUTXA \_\_\_\_\_

SUKURTSAL HELBIDEA \_\_\_\_\_ SUKURTSAL ZKIA. \_\_\_\_\_

KONTU KORRONTEA/LIBRETA

Entitatea

Sukurtsala

K.D

Kontu zenbakia

ARGIA: Zirkuitu ibilbidea 15


LASARTE-ORIA 20160

HARPIDETZA SARIAK

(BEZ barne)  
Hego Euskal Herria  
12.100 pztz  
Ipar Euskal Herria  
685 libera  
Espainia 12.100 pztz  
Beste Atzerriak  
15.750 pztz  
Airez 24.850 pztz

Euskal Kulturaren  
URTEKARIA ere  
etxean jasoko duzu

## L I B U R U A K



«TUPAREN SEME-ALABAK»

JON ARRETXE  
ELKAR, 182 or.

«Tubabun» Saharako kontuekin agertu zen 33 urteko basauritarrak bere abentura zaletasunarekin jarraituz, Brasilgo barnealdearen berri dakar. Bere bidaietan jasotakoak atsegin handiz irakurriko ditu edonork, Amazonastik Mato Grossorainoko bidea. Amazonasko oihanean egunero gertatzen den txikizioa salatzen du liburuan, Tuparen seme-alabak diren indioek bizi duten arriskuarekin batera. Azaleko aurkezpen fina, berri-tzailea eta oso atsegina du liburua. ●



«ITZALAREN ERTZEAN»  
PABLO SASTRE  
SUSA, 166 or.  
Bederatzigarren idazlana du

dagoeneko Pablo Sastrek «Itzalaren ertzean» hau. Irakurlea harritzeko egindako hamar ipuin eman ditu argitarara orain. Batzutan, ezustekoa baino zirrara arin baina sarkorra eragingo diote ipuinetan agertzen diren pertsonaiek. Muga-mugan bizi diren pertsonaia zaurituak dira liburuaren ardatz, beren ahotik mintzo direnak. Batzuk, iragana eta orainaren hegalean bizi dira; beste batzuk, metamorfosiaren limitean, bizitzaren eta heriotzaren artean kokolan, klandestinitatearen mugan... itzaletik hurbil denak. ●

## RITXI LIZARTZAREN BEGIETAN

## Bidaia mitologiko baten egunerokoa

IDAZLE askok izan dute euskal mitologiaren bidea lantzeko tentazioa ume-ipuinei ekiten hasitakoan. Aurren berritan ideia ona dirudienak, maiz ez du kalitatezko emaitzarik lortzen, ipuin didaktikoak literatura aldetik batera interesik ez dutenak egiten direlako edota behiak aspertzeko moduko toxoak idazten direlako. Beraz, uste baino lan zailagoa da erronka hau gainditzea. Are zailagoa da lana, idazlea kontalari izan ez eta istorioa hamar urteko ume baten ahotan jartzen denean.

Egitura xeheaz da egina istorio hau. Bi familiak zazpi herrialdeetan zehar egiten duten bidaia batean, hainbat paraje ezagutu eta kontu zaharrak eta mitologikoak -aukeraketari begira, ezagunenak dira ematen zaizkigunak- jasotzen dituzte. Gauzatzea planteamendua bezain sinplea. Txukun loturik dago, ipuinaren hari nagusia eta lekuan lekuko istorioaren kontaketa. Diztira berezia ez kontaketak, efikazia bai ordea. Gainera, topikoetara makurtzeko arriskua ederki saihesten du; izan ere, lekuetako ohiturak eta

ezaugarriak informazio moduan edo ikasgai izateko eman beharrean, hari nagusian ezkutatu eta irakurlea konturatu gabe jabetzen da horietaz guztietaz.

Hamar urteko ume bati agian zail egingo litzaioke bertan agertzen diren azalpenak ematea, baina egileak hainbat pasarte haren ahotan jartzen dituenean, badirudi neurri batean ume izakera hori faltseatu egiten duela ipuinaren hariari eusteko. Agian, akats bakarra, horrelako ipuina zortzi urtetik gorako haurrentzat izatea; nere ustez heldua-goentzat beharko luke.

Hizkuntz lanketari begira, ahalegin berezia egin du egileak gaztetxoek hizkera lantzen eta euren erreakzioek duten berbalizazioa bere horretan ematen.

Gaztetxoak mitologiara hurbiltzeko proposamen honek lortzen du bere helburua: irakurterraza eta atsegina izanik, ukitu didaktikoa izatea. Gainera, txukun erabiltzen du umea kontalari izateko. Beraz, hasieran aipaturiko bi erronkak egoki gainditu ditu.



«LEIREREN OPOR MIRESGARRIAK»  
AGURTZANE ORTIZ DE LANDALUZE  
ZUBIA




**«ZIRKUITU ELEKTRIKOAK»**  
**JOXE EPELDE**  
 ELHUYAR, 115 or.

Euskaraz orain arte gutxi landutako arloa jorratu du Joxe Epeldek: teknologia. Zirkuitu elektrikoak aztertu eta hauek osatzeko eta martxan jartzeko beharrezko informazioa bildu du bertan. Liburu xumea da Elhuyarren eskutik kaleratu duena, baina osatua eta ongi ornitua aldi berean. Korrante, zirkuitu eta sare ezberdinak jaso ditu, adibide praktikoekin batera. Zirkuitu elektriko hauek martxan jartzeko modua ederki azaldu dator, baita hauen inguruan beharrezkoa den informazio osoa. Injenieritza teknikoan murgildurik daudenei zuzenduriko liburua ●

**«AITON-AMONEN JAKINDURIA»**

**A. MARTZEL ANDRINUA**  
 IBAIZABAL, 180 or.

Herri baten lotxorra belau-naldirik zaharrenetan dagoela sarri entzundako kontua da. Martzel Andri-nuak aiton amonek hainjaitan erabilitako bertso pape-rak eta kantuak liburu txiki honetan jarri ditu. «Zu eta ni biok» liburuaren jarraipena da «Aiton amonen jakinduria» hau. Bertso eta kantue-tako asko jubilatuen bi-daietan bildutakoak eta ateratakoak dira. Kalitateak baino, freskotasunak eta alaitasunak hartzen dute nagusitasuna kantu hauetan ●



**«BIZI PUSKAK»**  
**JUANJO OLASAGARRE**  
 SUSASA,

Nafarroak azken urteotan eman duen idazle gazteen belau-naldiko izenetako bat da Juanjo Olasagarre arbi-zuarrarena. Bere bigarren poema liburua (eta ibilbi-dean hirugarrena) dakar orain, «Bizi puskek» azaltzen dituena. Nafarroako herri bateko jendearen bizimo-dua kontatzen du, 80ko ha-markadan eginiko erretra-tua. Sexua, politika, drogak, heriotza, maitasuna, rocka, kartzela... 23 pertsonaien begiradapean azaltzen zaiz-kigu. Nafarren eguneroko biziaren puska fresko eta anitzak dira liburuan azal-tzen direnak ●

**«JAKIN»**

1996 IRAILA-URRIA, 141 or.

Ekainean Donostian egin zi-ren Euskalkom jardunaldie-tan bildutako ponentziak irakur daitezke bertan. Jon Sarasuak egindako euska-razko prentsaren diagnosti-koa, Siadecoren euskarazko kultur kontsumoaren azter-keta, Iñaki Uriak hedapena eta sustapena aztertu du eta Pello Zubiriak euskal prentsaren desafio berriak. Je-xuxmari Zalakain printzi-pio-alorreko desafioetan mintzo da, Josu Landa ko-munikabide berriez, Pello Urzelai genero informati-boaren gainbeheraz eta Iñi-go Urrutia publizitate ofi-ziala jasotzeko eskubidez ●



  
**Hontza**  
 LIBURUDENDA

Okendo kalea, 4  
 Tel. 42 82 89 Faxa: 43 12 56  
 20 004 DONOSTIA



«TXIKITTO!»

...ETA KITTO! ALDIZKARIA 1996KO URRIA, 16 or. Eibarko haurrek zorionez egoteko arrazoirik badute. Hiri horretan hain ezaguna egin den «...eta kitto!» aldizkariak umetxoia eduki berri du: «txikitto!». Denborapasak, jolasak, elkarriketak, marrazkiak eta Ipurterre ipuin lehiaketan saritutako lanak aurkituko dituzte umek.

Gustu ona musika bihurtuta

BENITOREN jarraitzaileek zioten: «Azkenean Benitoren lan berria». Ba gustura egon litezke, ni Benitoren jarraitzaile sutsua ez banaiz ere, entzuteko oso atsegin izan baitzait.

Eta berari elkarriketaren batean entzun diodan bezala, eta bere musikari zenbaitek esan didaten bezala «Benito oso pozik dago kantatzen ikasi duelako».

Ez du horrek esan nahi lehen gaizki kantatzen zuenik, baina musiko batek kantatzen ikasi duela dioenean, hobeto modulatzeko ikasi duela esan nahi du, arnasketa kontrolatzen ikasi du... gauza horiek guztiak.

Eta egia da, diskoa entzuten dūzunean, kantu bakoitzaren ahotsaren

baitan eremu ezberdina da. Batzuetan rock abeslari baten indarra eta besteetan leun.

Intrumentisten artean, zuzenerako erabili ohi duen taldea hartu du, nahiz eta berrikuntzarik baden: Luis Caminoren perkusioak, esaterako. Gustura da Benito bere taldearekin.

Betiko kantu motak dakarkizugu eta egia esan aparteko berrikuntzarik ez nuen espero eta gutxiago Benito Lertxundi izanda.

Barrua ongi unkitu didan kantuetakoa bat «Uhera» da, bere anaia zenari Pello Irizar pianojoleak eskainitako kantua. Piano soil bat eta txelo batek hainbeste lortuko zutenik ere... Hemen dagoen honel 20 aldiz baino gehiago entzun du kantu



«HITAZ OROIT»  
BENITO LERTXUNDI  
ELKAR

hori. Biba zu Pello!

Pasa den astelehenean Madrilen aurkeztu behar zuen diskoa, ea Madrilgo entzuleek nire iritzi bera duten.

Kontzientziaz egindako diskoa eta oso gustu onarekin.



«LEONEN ORROAK»  
IBON KOTERON-KEPA  
JUNKERA  
ELKAR

Alboka eta trikitixaren maisu handien elkarteak emaitza bikaina ekarri du. Leon Bilbao, Fasio eta Maurizioari euren omenaldia egin

nahi izan diete disko honekin. Trikitixaren iraultzan pausu bat gehiago da honako «Leonen orroak».

Hamasei kantu dira orotara, denak bikote honek sortu eta moldatutakoak. Eurekin bat, izen eta sona handiko musikariak izan di-

tuzte laguntzaile: Luis Delgado, Tomas San Miguel, Javier Paxariño, Rafa Martin, Carlos Beceiro, Xose Manuel Budiño, Bixente Martinez, Natxo de Felipe, Anton Lataxa, Maixa, Ixiar eta Garbiñe eta Xabier Berasaluze «Leturia».

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa  
fundación



20 gradu eta % 50eko hezetasunean gordetzen dituztela zintak dio Agirregomoscortak. (Arg: G. G.)

## Historia-metroen zaindariak

**M**iramongo eta Iurretako sotoak suak hartuko balitu, Euskal Herriaren historiako zati diren irudiak gordetzen dituzten 140.000 zinta erreko lirateke. Irudi artxibo erraldoi honen zaindariak dira Euskal Telebistako dokumentazio saileko hogeitaz langile eta bost bekadun; bideo zintak artxibotik atera, sartu, sailkatu eta behar bezala gordetzea dute eguneroko eginbeharra.

SOTOETAN gorde ohi dira ardo onak. Euskal Telebistako sotoan ez da ardorik gordetzen ordea, milaka bideo zinta baizik. Ez ilunpean, baina bai tenperatura eta hezetasun egokietan gordetzen dira 140.000 zinta Miramon eta Iurretako biltegiak.

Sotoetan ixiltasuna nagusi bada hiru solairu gorago ez da horrelakorik. Dokumentazio saileko leihatila au-

rean kazetari ilada ohi da eguerdia edo ilunabarra hurbiltzen doan heinean. Batek halakoren irudiak behar dituela informatibotarako, besteak noizbait atera zen pertsona harena... Egunero batz beste 400 zinta atera ohi dira artxibotik.

Zinta hauek guztiak atera ahal izateko, ezinbestekoa aurrez gorde eta sailkatzea. Inaki Agirregomoscorta do-

kumentazio eta artxibo bu-ruak dioenez, «*produzitzen den material guztia ez da gordetzen eta aukeraketa on bat egitea oso garrantzitsua da*». Informatiboetan agertu ohi den material gehiena jasotzen da, 32 zinta egunero, hauek zinta batean trinkotu eta sailkatzen dira.

Baina informatiboek ez bezalako bidea jarraitu ohi dute beste programek: «*ia dena jasotzen da, baina be-*

*randuago bilera batean erabakitzen da zein gorde eta zein ez. 'Rompecabezas', 'Hirutan biru' eta atal bakoitza ia bestearen antzekoa duten programak gordetzen dira. Baina, horiek bilabete batzuren ondoren desagertu egingo dira, eta agiri modura biru atal bakarrik gordeko dira hasierako bat, erdiko bat eta amaierakoa. Bestalde, 'Euskal Herriatik' moduko saioetako masterrak ere gorde egiten dira».*

Urteetan pilatutako irudiak dira artxiboan, historia zatiak finean. Hasieran kopiak erreklamazioei erantzuteko asmoz gordetzen ziren. Egun, irudi artxiboa barne zerbitzurako da batik bat. «*Hala ere ondare ideia dugu. Jaurlaritzan argi dute hau kultura barnean dagoela, baina adibidez Frantzia edo Eskozian, telebistek kopia bat fondo bati eman beharra dute, bideoteka nazionala balitz modura. Hori hemen lortzeko ordea, sentsibilitatea beharko genuke. Azken hamarkadaren historia egiteko derrigorrezkoa izango da gurekin harremanetan jartzea irudiak erabili nahi badira*» dio Agirregomoscortak.

Dokumentazioan, irudi artxiboaz gain hemeroteca eta fonoteka ere bada, orotara dokumentazioan hogeitaz langile eta bost bekadun ari dira. «*Gure arazoa atzean gaudela da. Ikusten ez den lana da. Baina belaunaldi berriek lan hori aintzat hartzen dute. Artxiboa asko erabiltzen dutenek beren saioetan gure lana aipatzen hasi dira. Hori oso garrantzitsua da guretzat*»

**ARRITXU ZELAIA**



# Gerardo Puente: «Telebistan inoiz baino tratu txarragoa eman zaio 1 Formulari»

**E**uskal Tebistak 1997ko Munduko 1 FormulaTxapelketako lasterketak emititzeko eskubideak erostear da. Gerardo Puentek auto-gidari aditu baten laguntzaz aurkeztuko ditu beste batzuren artean, Montecarlo, Silverstone, Monza, eta Imolako lasterketak.

## **Zein helbururekin eskuratu nahi ditu ETBk, 1 Formulako eskubideak?**

Kirol programazioa indartzeko kalitatezko produktu bat behar duelako hartu du erabakia nere ustez. Kalitatezko produkzio izateaz gain, sona handiko kirola da; Futbol Txapelketa, Frantziako tourra eta Joku Olinpikoekin batera, 1 Formula puntako kirola da.

## **Iaz 1 Formula batik bat telebista pribatuetan eskaini zen.**

Aurreko urteetan 1 Formulako eskubideak beste kate batzuek izan dituzte eta inoiz baino tratu txarragoa eman zaio. Hori dela eta, 1 Formulako arduradunek merkaturia berreskuratu eta bultzatu behar zutela pentsatu zuten. Beraz, FORTAri eskaini zioten, eta FORTA

diren telebistetatik TV 3 eta ETB eskubideak erostekotan dira.

## **Emanaldi hauek barne produkzioa osatzeko modua al dira?**

ETBk barne produkzio oso garrantzitsua du eta 1 Formulako emanaldiak eskaini ahal izatea horren osagarri litzateke. Kirol arloan adibidez barne produkzio handia da: albistegiak, asteburuetako programazioa, txirringularitza... Telebista honen izaera horretan datza, barne produkzioan, alegia.

## **Euskal Herrian nolako jarraipena du automobilismoak?**

Probetara joaten den jendea ikustea besterik ez dago. Jaizkibel igoerara 10.000 pertsona baino gehiago joaten dira. Berdina gertatzen da herri txikietako laisterketekin.

## **ETBko lehen kateak kirol gehiegi eskaintzen duela esan ohi da.**

Logikoa da kirola eskaintzea, gainera, kirolaren fenomeno ez da ETBn bakarrik ematen: kate askotan kirolek espazio garrantzitsu bat betetzen dute, beste kate batzuk monografikoak dira. Gainera audientzian arrakasta du, jendeak produktu hori nahi duelako.

## **TXORI BATEK**

## **ESAN DIGU**


### **Urte Zahar gaueko iragarki garestiak**

Jakinekora da urteko azken iragarkia eta datorreneko lehenengo garestienetakoak izan ohi direla. Baina horiek bakarrik ez, gau horretako gehienak normalean ohi dena baino askoz ere garestiagoak izan ohi dira.

Television Españolako urteko azken iragarkiak, 16 milioi pezeta balio ditu. 20 segundu horiek, Television Españolako iragarki bat ohi dena baino zortzi aldiz garestiagoak dira.

Ikuslegoa ez da normalean zortzi aldiz gehiago izaten, hiru aldiz gehiegok ikusiko balu eta horren arabera prezioa jarri iragarkiei, 6,5 milioi pezeta 'nahikoa' liratezke. Cia Medianetworkek egin duen azterketaren arabera, balio beharko luketaren bikoitzean saltzen dituzte urteko azken gau horretako iragarkiak.

Gau horretako ikus-entzulegoa handia da. Hamabiak jo baino hamabost minutu lehenago eta beranduago telebista 14,5 milioi pertsonen ikusten dute bataz beste, gehienez jota 15,5 milioi pertsonen.



«1 Formulak ospe ona du» dio Gerardo Puentek.

ITZIAR CARRASCO



### ■ Olaeta baletaren emanaldia ostiral gauean

Segundo Olaetak sortu zuen baletaren emanaldia eskainiko dute ostiralean. Segundo Olaeta gernikarrak Elai-Alai dantza-taldea, Euskal Herriko lehen talde koreografikoa sortu zuen. Iparraldeko euskal dantzaren pizkunda bideratuko

zuen Miarritzeko Oldarra dantza-taldea ere sortu zuen. Bilbon Olaeta akademia eta baleta sortu zituen 1950ean.

Konpositore eta koreografo bizkaitarra jaiio zena-ren mendeurrena ospatzeko hainbat emanaldi egin ditu balletak atzerrian. Euskal Telebistan ostiralean eskainiko dutena, azaroaren 24an grabaturiko Olaeta baletaren emanaldia izango da. Azaroaren 29an, 22:05ean

### ■ ETB-Diario Vasco torneo Errioxatik

Pelotazaleek azaroaren 25ean, larunbatean amateur mailako pilota partidua ikusteko aukera izango dute. Goizean 11:25ean eskainiko dute pilota partidua, eta arratsaldean torneo beraren parte diren herri kirol norgehiagokaren txanda

izango da, 16:25ean. Igan-dean ere esku-pilota partidua eskainiko dute, oraingoan Baque Txapelketa izango da ikusgai eguerdiko 12:00etan.


### ■ «ETB Hezibide»n eguerdiro dokumentalak

Astelehenetik ostiralera 12:00ak aldera hasi ohi da «ETB Hezibide» deituriko atalaatara. Honen barne bi dokumental eskaini ohi dira «Ate irekia» eta «Arrantza» izenekoak.

«Ate irekia» argazkigintzaren inguruko dokumentala da, bertan argazkigintzaren hastapenetik gaur arterainoko historia jaso dute. «Arrantza» izeneko dokumentalean itsasoa eta arrantzari buruzko erreportaiak eskaini ohi dira. Azken dokumental hau 12:20 aldera izan ohi da.

### ■ «Hirutan hiru» Joxe Felipe Auzmendirekin

Eguerdioro telebistako lehiakideak, eta etxean direnak hartzen dute parte lehiaketa honetan. Galderei erantzunez hirutan hiru osatu behar dute. Telebistako «Hirutan hiru»-ra joateko aurrez lehiakideak irratitik pasatu behar dira. 14:55ean astelehenetik ostiralera.



# ETXANIZ

**Juan Arana 1 eta 3**  
**Tel. eta Faxa: (943) 61 17 67**  
**20302 IRUN**

**Ez bakarrik saldu, zure bainua berritzeko edo apaintzeko behar duzun guziaz kolokatu ere bai:**

- ▷ SANITARIOAK
- ▷ GRIFERIAK
- ▷ MUEBLEAK
- ▷ MANPARAK
- ▷ PREZIO GUZITAKO OSAGARRIAK

**ITURGINTZA LANAK EGITEN DITUGU**

## Arrasate Irratia informatikaz blai

**A**rrasate Irratian ostiralero 10:00etatik 11:00etara «KGB» informatikari buruzko irratsaioa izan ohi da. Jagoba Blazkez eta Iker Errastik gidatzen duten irratsaio hau iazko txandan antenaratu zen lehenengoz eta entzuleen artean arrakasta lortu zuen. Aurten ere bide beretik ari dira.

IRRATI txiki askotan gertatzen den bezala, Arrasate Irratian ere bi lagun elkartu ziren irratsaio bat egiteko asmotan. Baina ez zen hain ohikoa, informatikari buruzko irratsaioa egitea baitzuten asmoa. «Txikitatik informatika eta informatika jokoan inguruan ibili gara Iker eta biok -dio Jagobak Blazkezek- *besteei musika gustatzen zaien moduan, guk informatika dugu gustuko*»

Beste irratia batzuetan ere

egin izan dute informatikari buruzko irratsaioa, eta arrakasta izan dute gehienetan. Arrasate Irratian ere hala gertatu da, «KGB» informatika saioa iaz hasi eta aurten ere antenan baitago; oso harreara ona izan du entzuleen artean.

Irratsaioaren edukia beti informatikaren ingurukoa da. «Edukia ez dago oso landua, baina programa atsegina izan ohi da. Jendeak bost egiten digu eta noizbete binka txantxak izaten dira



Arrasate Irratian «KGB» irratsaioa ostiralero egin ohi dute Jagoba Blazkez eta Iker Errastik. (A: G. Garaialde)

*tartean» argitu du Jagobak.*

Irratsaioa bi zatitan banatuta dago, lehen orduerdia informatiboaren txanda ohi da: «informatikaren inguruko berriak edo bestela erreportaiaren bat prestatzen dugu. Bigarren orduerdian lehiaketa da: Arrasateko informatika enpresekin akordio bat du-

*gu eta hauek, txandakatur bilabeteroko opariak banatu ohi dituzte.*

Iker eta Jagoba ikasleak dira, beraz, «kanpora ikas-tera joan behar ez baldin badugu irratsaioarekin jarraitzeko asmoa dugu», dio Jagoba Blazkezek.

ITZIAR CARRASCO

## B A G A K

### ■ Igeldo Herri Irratia mutu da

Donostiako Igeldo auzoko Igeldo Herri Irratia mutu da udaz geroztik. Udako etenaldia, atsedenaldira hartzeko eta antena konpontzeko asmoz izan zen, baina harrez gero ez da irratsaioa izan.

Iazko azaroaren bukaeran Itsas Aurre taldearen ekimenaren ondorioz jarri zen martxan irratia. Ostegunero ordubeteko emanaldia zuten. Watio bateko emisora eta aplikadore bat izan dira irratia azpiegitura. Horretarako Itsas Aurrek 105.000 pezeta (4.200 libera inguru) gastatu zituen. Orain irratia herri kontseiluraren esku uztea erabakia dago.

### ■ Txapa Irratia astean lau egunez antenan

Txapa Irratia asteazkenetik ostiralera 21:00etatik 23:00etara eta igandeetan goizez edo arratsaldean (astero txandakatur) antenaratu izan da.

Duela hilabete itzuli ziren lanera etenaldiaren ondoren. 25 bat lagun aritu dira programazio berria prestatzen. Herritarren partaidetza bultzatzeko, Txapa Irrati-koek larunbat eguerdiko Kultur Etxean egin ohi duten bilerara deialdi zabala egin ohi dute.

Musika aparailu berriak dituzte. San Martzialetak txosnatik ateratako diruz erosi dituzte: konpaktoa, aplikadorea...

## A U R P E G I A



### Txetxu Urbietak (Euskadi Irratia)

Kiroletako kazetari hau Leioan bere ikasketak egiten ari zela hasi zen Euskadi Irratian, «bekadun bezala hasi eta gaur arte Euskadi Irratian ibili naiz».

Txetxu Urbietak, Arri-

txu Iribarrekin batera egiten du irratsaioa eguerdiko. Beti kirolaren inguruan aritu izan da kazetari hau: «Betidanik, kirolzalea izan naiz, baina ez litzaidake axolako beste zeredozertan ere aritzea».

Ez du beste komunikabiderik probatu, «beti irratian ibili naiz. Telebista nolako komunikabidea den ezagutzeko gustatuko litzaidake, baina ez dit inbidiarik ematen; gainera ETBko aurkezlea izateko zatarregia naiz». Baina hala ere, futbol partiduak erretransmitituko litzekela gaineratzen du.

## Idorreria: gutariko askoren gaitza

ESPAINIAKO datuen arabera (Osakidetza nahiz Osasunbideak-eko arduradunak: noizko Euskal Herriari buruzko datu propioak?), populazioaren % 41,3k idorreria eduki du noizbait. Hala adierazi dute Rovifarma laborategiak egindako ikerketa baten emaitzek. Emaitza horien arabera, Valentzia da, itxuraz, idorreria arazorik latzena bezala hartzen duen eskualdea, eta Andaluzia, berriz, beste muturrean dagoena. Ikerketa Sigma Dos/Quota MBB


etxeak burutu zuen joan den martxoan, bost eskualde geografikotako (aurrekoek gain Katalunia, Madril eta EAE???? ere sartzen ziren) hainbat pertsona arruntari, mediku espezialistari eta farmazeutikori egindako 500 elkarrizketa pertsonalen bitartez.

Idorreria eragiten duten arrazoen artean, jan-neurri aldaketak, likido falta eta bidaiak dira gehien aipatzen direnak. Sexuen arabera, oster, gizonezkoen % 36k ez omen daki zer egin ara-

zoari aurre egiteko, emakumeak askoz ere seguruago mintzatzen diren bitartean prebentzio-neurriei buruz (berdurak, frutak eta zuntza jan-neurrian). Eta emakumezkoek joera handiagoa dute, nonbait, idorreria jasateko. Horien artean 60 urtetik gorakoak, herri txikietan bizi direnak eta bizimodu sedentarioa daramatenak izan ohi dira arazoa gehien sufritzen dutenak.

Inkesta egin dieten pertsonen hiru laurdenak erremedio natural eta dietetikoak erabiltzen omen ditu (beren gustu eta nahia hori litzateke behintzat) arazoari aurre egin ahal izateko, baina errealitatean ikusten denez, populazioaren ia % 70ek glizerinazko supositorioak erabiltzen ditu (kasik bikoiztu egiten da emakumeen proportzioa gizeonekiko, eta gehienbat 30-45 urte bitarteko jendea izaten da, eskoladuna, eta diru-sarrerei begira ere ondo samar dabilena) ■

Emakumeek joera handiagoa dute idorreria jasateko. 60 urtetik gorakoak, herri txikietan bizi direnak eta bizimodu sedentarioa daramatenak izan ohi dira arazoa gehien sufritzen dutenak



JABIER AGIRRE

## L A N D A R E A K

### Patrika beroko azalea

EGUBERRI garaitu honetan, edonolako tratanteek bezelaxe, landare-saltzaileek ere ez dute, ez, negozioarako aukera alferrik pasatzen utziko.

Eguberrietarako bereziki, landare asko ekoizten da. Batzuk beste urte-sasoi batean izaten direnak, baina urrutiko lurraldeetan edo geurean, baina berogailu eta argitan izugarrizko gastua eginez. Erramileteetarako arrosa eta krabelinak esate baterako. Beste batzuk urte-garai honetarakoxe hazten dira, tenperatura eta argitasun baldintza apraposetan, orokorrean. Pazko-lorea eta azalea dira hauen artean ezagunenak.

Garaiz kanpo landare ikusgarriak ekoizteko energia asko behar da, eta

hori salmenta-prezioan ederki nabarmentzen da. Landare aukera hau, urtean zehar, egun jakinetan soilik ematen da: Santu guztiak, Amaren eguna, Eguberriak eta abar.

Eguberrietako hau, paotxa ederra da saltzaileentzat. Traturako garai ezin hobea. Familia, opariak eta antzekoengatik erdi txoratuta ibiltzen gara eta abenduko soldata estra medio, patrika beroa.

Honela, etxe asko eta askotan azalea sartuko da eta hasiera hasieratik kontuegiten ez bada, laister oso-osorik zapuztuko da.

Azaleak hotza maite du, beraz beti kanpoan eduki. Amagiarreba edo koinata bisitan etortzen zaigunean



salako mahai gainera sartu, harro erakusteko; baina honek aldegin bezain azkar, berriro kanpora atera. Ura ere erruz behar du; beraz, lorapotearen azpialdeko plateran beti ura eduki behar du, urasetutako lurretan bizitzera ohitua baitago ■

JAKOBA ERREKONDO

# Zuriza-Isaba: «GR 11» bidearen lehen pausoa Euskal Herrian

**P**iriniotako mendikatea «GR 11» bideak gurutzatzen du, eta Nafarroako ipar-ekialdetik sartzen da Euskal Herrian. Txangoa Antsoke Zurizan hasiko dugu, eta Nafarroako Izaba ezagunean amaituko. Hamalau kilometroko txango honetan, Ezkaurreko gandor ikusgarriaraino igoko gara. Bertatik, Piriniotako mendikatearen ikuspegi bikaina izango dugu.

NAFARROAKO Pirinioek jendetza handia biltzen dute. Gailurrak egitea izan ohi da asmo nagusia; baina «GR 11» izeneko bidearen bitartez, Pirinioak zeharkatu daitezke Mediterraniotik Kantauri itsasoraino. «GR 11» bidea Aragoako Zurizan (1.227 metroko altuera) barrena sartzen da Euskal Herrian. Zurizak kanpin zabal bat du eta baita aterbe pare bat ere.

Kanpinetik atera eta segituan, eskuintzerantz joko dugu egoera txarrean dagoen pista batetik barrena. Kilometro pare bat egin ostean, Argibiela edo Nafarren Mendatera iritsiko gara; hots, Nafarroa eta Aragoako mugara. Gainan ezkererantzko bidea hartu, Abizondo-

ko mendi-lepora iritsi arte. Ezkaurre handia aurrean izango dugu. Pagadiak atzean utzi eta harrizko bide maldatsua gainditu ondoren, Ezkaurreko tontorrera iritsiko gara (2.047 metro). Hiru ordu beharko ditugu iristeko.


Ezkaurre mendi laua eta zabala da, ondoan dituen mendi-tontor erpin-tsuak ez bezala.

Tontorretik ikusten den paisaia, berriz, ikusgarria: Txamantxoia, Lakorra, Hiru Erregeen Mahaia eta Alanoko men-

di-zerra parez pare agertuko zaizkigu. Ezkaurretik hego-mendebalderantz egingo dugu, 1.700 metroko altuerara dagoen Ezkaurreko «Ibon» edo lakura iritsi arte. Laku honetatik aurrera, hegoaldera doan bidea jarraituko dugu Berroetako bailaran zehar.

Egoera txarrean dagoen borda baten ondotik pasako gara, eta pinudi bat atzean utzita, Berroeta bailarako erreka zeharkatzen duen pista batera iritsiko. Hiru kilometrotan pista hau mendebalderantz jarraituz, Izabaraino helduko gara bospasei orduko ibilaldia burutu ondoren. Izaba herri oso ezaguna da Euskal Herriko mendizaleen artean, eta ostatu nahiz aisirako aukera zabala eskaintzen dio bertaraino hurbiltzen denari. Azken gomendioa: eguraldiari arreta jarri, dagoeneko bailarak eta gailurrak neguko janzkia soinean izango baitute ■

ANDONI URBISTONDO  
MIKEL EGAÑA



*Ezkerreko argazkian, Ezkaurre mendiaren ikuspegia Zuriza ingurutik. Tontor honek 2.047 metroko altuera du, eta alboko mendiekin alderatuta diferentea da: nahikoa gaina laua du. Eskuinekoan, oster, Zuriza bailara ederraren ingurune bat.*



**ANTZERKIA**

**30**

Larunbata

● Debako **Goaz Antzerki Taldeak Xabier Mendigurenen «Larrialdiak»** antzetzuko du arratseko 20:00etan Gernikan. Bihar, ostera, Berriozarren izango ditugu obra bera aurkeztu asmoz, 19:00etatik aurrera.

● **Hika antzerki taldeak «Henry Ben-goia Inventarium»** antzezlan taularatu du gaur Donostiako Añorga auzoan gaueko 22:00etatik aurrera.

● Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdiaren barruan, **Markeliñek «La Garbo S. A.»** antzetzuko du gaur 20:30ean Beñat Etxepare Antzokian. Bihar, **Teatro Iruñak «Jaberik gabeko zopa-ontzia»** aurkeztuko du haurrentzako sailaren barruan 18:00etan Principal Antzokian. Abenduaren 3an eta 4an, **Centro Dramatico Nacionalen «Haciendo Lorca»** ikusi ahalko dugu Principalen 20:30ean.

**1**

Igandea

● Getxoko Udalaren «Bizi erraz, euskaraz» kanpainaren barruan, **Kukubiltxok «Behin bazen»** aurkeztuko du Getxo Antzokian 12:30ean.

**4**

Asteazkena

● EHuren Leioako kanpuseko Areto Nagusian, **Mirapalo antzerki taldeak «Azul»** lana antzetzuko du 12:00etan eta 17:00etan.



Iragan azaroaren 15az geroztik, eta abenduaren 15era bitarte, **«Torre Luzea» Nazioarteko IV. Argazki Erakusketa ikusteko modua dugu**

**Andoaingo Gaztetxearen XII. urtemuga dela-eta antolatutako ekitaldi-sorta hurrengo egunotan amaituko da.**

Azaroaren 29an bertsolari gazteen saioa izango da gaueko 22:00etatik aurrera; bertso saioaz gain, gaztain, gazta eta sagardoarekin sabela betetzeko aukera ere izango dugu. Biharamunean, ostera, Potato talde gasteiztarraren *reggae* eta *salsa* musika-doinuekin oinak dantzan jarri ahal izango ditugu arratsaldeko 20:30ean hasita. Eta azkenik, hilaren 30ean, Legaleon T taldeak «Marilu» obra taularatuko du ilunabarreko 20:00etan. Antzerki-emanaldi honekin amaituko dira



Andoaingo Gaztetxearen XII. urtemugaren ospakizunak. Aipatutako ekitaldi hauek guztiak Gaztetxean bertan izango dira.

**ERAKUSKETAK**

**29**

Ostirala

● **«Komikiak 100» erakusketa ibiltaria Zarautzera** helduko da gaur, eta bertan egongo da **abenduaren 15era bitarte**. Komikigintza-ren historia bere baitan biltzen duen erakusketa honek —besteak beste, komikigintzako pertsonaiarik mitikoenak—, euskararen eta komikiaren harremana ere aztergai du.

● **John Flaxman neoklasikoaren «Homero, Esquilo, Hesiodo, Dante: eredu klasikoaren zabalkundea»** bilduma dugu ikusgai Bilboko Arte Ederretako Museoa. Abenduaren 12ra arte egongo da zabalik.

**Zarauzko Torre Luzean.** Bost argazkilariren lanak bildu ditu aurtien erakusketa honek: Pedro Luis Raota argentinarrenak, Mamen Marirenak, Enric Pamiesenak, Cesar Cenicerros errioxarrarenak eta Julian Redondo bilbotarrarenak. Guztien artean, Raota zena nabarmendu behar da; izan ere, argentinarra munduko 10 argazkilarionen artean kokatzen dute adituek. Marik, aldiz, zuri-beltzeko unibertsoa izugarri ezagutzen du. Pamies ere argazkilaria handia da, eta hainbat argazki-erakundetako ohorezko kidea da. Cenicerros eta Redondoren lanak ere entzutetsuak dira oso.

**IKASTAROAK**

**29**

Ostirala

● **Antzerkirako eta Musikarako Kantu eta Interpretazio Ikastaroa** burutuko da Urrietako Sarobe Arte Eszenikoen Gunean hiru txandatan: abenduaren 13an, 14an eta 15ean, apirilaren 4an, 5ean eta 6an, eta ekainaren 7tik 12ra. Ikastaroa Isabel Alvarezek eta Enrique de Santiagok emango dute. **Solfoaren ezagutza izatea ezinbestekoa da.** Ikastaroaren prezioa: 40.000 pezeta (1.600 libera).

**JARDUNALDIAK**

**29**

Ostirala

● **Garesko Euskararen V. Kultur Astea gaur amaituko da.** 20:00etan, udal-etxeko Erabilera Anitzeko Aretoan, Iñigo Goikoetxandiak «Euskal Herriko musika gaur egun» izeneko hitzaldi-kontzertua eskainiko du. 21:30ean, berriz, **Izarbeibarreko euskaldun eta euskaltzaleen afaria** egingo da. «Euskara betiko mintzoa» erakusketak ere gaur itxiko ditu ateak.

● **Arrigorriagako Euskal Astea gaurko eta biharko emanaldiekin amaituko da.** Gaur 20:00etan bertso saioa, eta 22:00etan bertso afaria Poli jate-txean Jokin Sorozabal eta Mikel Urdangarinek. Bihar, aldiz, rock kontzertua herriko plazan 22:00etan: Joxe Ripiau, Dantzut eta Ehun Kilo.

## LEHIAKETAK

### 29 ● VII. Beasaingo Idazlan Lehiaketa

Ostirala Beasaingo Udaleko Euskara Batzordeak **ikasleen euskaraz idazteko trebetasuna sustatzeko**. Gaia librea izango da. Bost maila bereiztu dituzte: 16 eta 18 urte bitartekoak (bost orrialde gutxienez eta sei gehienez), 14 eta 15 urte bitartekoak (lau gutxienez eta bost gehienez), 12-13 urtekoak (hiru eta lau), 10-11 urtekoak (bi eta hiru), eta zortzi eta bederatzirtekoak (bat gutxienez eta bi gehienez). **Lanak abenduaren 16a baino lehen** aurkeztu behar dira.

### 5 ● Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarteak, Maizpide

Osteguna Euskaltegiak eta Gerririk **Txorizugarri Txorimalo Lehiaketa antolatu dute Lazkaon**. Nahi duen orok har dezake parte, bakarka nahiz taldeka. **Txorimalo bakoitzak euskarazko esaldiren bat eraman behar du**. Lehiaketa hiru mailatan banatu dute: 14 urte bitartekoak, 15-60 urte artekoak eta 60 urtetik gorakoak. Parte hartzeko, Lazkaoko Gerriko liburudendan eman behar da ize-na abenduaren 5a baino lehen.

## MUSIKA

### 29 ● Gaueko 22:30etik aurrera, Joxe Ripiau eta King Mafrundi

Ostirala taldeen doinu dan-



### Tolosako XIV. Txotxongilo Jaialdia aste honetan bertan amaituko da.

Hilaren 29ko emanaldiak: Poloniako Teatr Banialukaren «Pedro tigrea» 19:30ean; Zootrop kataluniarren «Ile madarikatu batengatik» 14:30ean; Titiriteros de Binefar taldearen «Azeriaren ipuina» 17:30ean. Biharamunekoak: Lleidako Centre Titelles taldearen «Gulliver Liliput herrian» 12:00etan eta 17:30ean; Italiako Teatro del Buratoren «Fly Butterfly» 19:30ean eta 22:00ean. 1ean, aldiz, Txotxongilloren «Printze txikia» 17:30ean eta 19:30ean. Taldea sortu zela 25 urte dira, eta emanaldi hau omenaldia izango da beraiantzat.

### Azaroaren 29an «Atxuriatik Larrunerat» kultur hilabetea hasiko da Azkainen, Beran, Saran eta Zugarramurdin.

Egun horretan bertan Iñurretegi anaiek Shisha Pagma mendira egindako espedizioari buruz hitz egingo dute. Biharamunean, aldiz, Anuntxi Arana antropologoak, «Mendiko mitologia» gaia mintzagai harturik, hitzaldia eskainiko du. Bi hitzaldiok Beran izango dira. Abenduaren 1erako, kantaldia iragarri dute antolatzaileek Sarako kiroldogian. Bertan entzungai izango dira, besteak beste: Jojo eta Ramuntxo, Amaia Zubiria, Maite Idirin, Pascal Gaigne eta, aspaldiko partez,



Josu Goia. Abenduaren 6an Euskal Herriko mendien historiaz mintzatuko zaigu Manex Goienetxe Beran.

tzagarriak entzuteko tenorea izango duzue Aizoaingo Arzaia aretora hurbiltzen zareten guztiok.

● **Ganbara** folk taldearen bi kontzertuz gozatu ahalko dugu aste honetan. Gaur, arratseko 19:30ean hasita, **Heraniko kultur etxean** izango ditugu entzungai. Aldiz, bihar **Iurretako frontoian** izango dira 22:00etan.

### 30

Larunbata

● Aizoainen, oraingoan herriko frontoian, **Su Ta Gar** talde eibartarrak bere kantu indartsuak eskainiko ditu 21:30ean hasiko den kontzertuan.

● **Mikel Erentxun** Donostiako musikari eta Duncan Dhu taldeko abeslari ohiak kontzertua emango du gaur ilun-

tzeko 21:00etan hasita **Urnietako Saborre Arte Eszenikoen Gunean**.

● **Alain Giroux eta Jean-Louis Mahjun** musikariak *blues* kontzertua eskainiko dute Getxo Antzokian ilunabarreko 20:00etatik aurrera.

### 1

Igandea

● **Joxe Ripiau** talde marxosoa Oiartzungo enparantzan izango da gaur ilunetzeko 20:00etatik aurrera.

● **Barakaldoko V. Zarzuela Topaketen** azken emanaldia ikusi ahalko dugu gaur. 20:00etan, **Amigos del Arte de Santander taldeak «La del soto del parral»** taularatuko du Barakaldo Antzokian. Musika Reveriano Soutulloko eta Juan Vertek jarriko dute.

### 5

Osteguna

● Joseba Tapiak, Bixente Martinezek eta Ruper Ordorikak osatzen duten **Hiru Truku** taldearen doinuak entzuteko parada bikaina izango da gaur gaueko **22:00etan Legazpiko Laxartegi aretoan**.

## SOLASALDIAK


### 29

Ostirala

● **Pedro Manterola margolariak**, «Retrato del Espiritu Santo» izenburupean, **euskal arteari buruzko hitzaldia** emango du Zumarragako Legazpi Dorretxean 20:00etan.

# Denborapasa

## Gurutzegrama




**EZKERESKUIN:** 1.- Gizona. 2.- Iharduera. Euskal atzikia. 3.- Zaude. Tailandia. 4.- Otomandarrak. 5.- Diosala hitza. Zuen, haiei. Lehenengoa. 6.- Errenkada. Akitu aditzaren infinitiboa. 7.- Emakume izena. Tona. Esan ezak. 8.- Nafarroako ibilgailuetan. Desagertarazi. 9.- Bat. Larrua. Arabako alderdi espainiarra. 10.- Iparraldean, halere. Arrazak.

**GOITIK BEHERA:** 1.- Gaztelera. 2.- Irautearen ondorioa. Berrogeita hamar. 3.- Zerbaitek eragiten duen iraupen laburreko sentiimendu bizia. Kanpo. 4.- Betekadak. Röntgen. Gabezia. 5.- Neoia. Ur izoztua. 6.- Arerioa. Bihi. 7.- Afrikako estatua. Bizkaieraz, zuen. 8.- Potasioa. Hatsa. Bostehun. 9.- Mallabiko auzoa. Etxeko aberea. 10.- Bokal bikoitza. Ergelak.

## Kate hitzak

Letra kopuru desberdineko hitzak ageri zaizkizu ondoan. Helburua zera da, eskuineko taula osatzea, puzzlea bailitzan. Pasa ezazu hitz bakoitza dagokion lekura, kontuan harturik hitzok ezker eskuin eta goitik behera joan daitezkeela.



### 8 letra

Azalorea  
Laukotea  
Maratila  
Omenaldi

### 7 letra

Ekialde  
Eratuta  
Italiar  
Zerriki

### 4 letra

Aita  
Aroa  
Bala  
Bera  
Beta  
Dama  
Eten  
Giza  
Idun  
Kana  
Kito  
Laia

Latz  
Lege  
Lera  
Nere  
Nian  
Noka  
Omen  
Oren  
Sake  
Soak  
Zama  
Zoin

### 3 letra

Ari  
Eri  
Iaz  
Oti

### 2 letra

At  
Ek  
Ge  
Mu  
Re  
Ti  
To  
Ze




**ERANTZUN** zenbakidunak bete ondoan, pasa ezazu letra bakoitza dagokion goiko taulako laukira eta grabatuan ageri den herriaren izena, Nafarroako herri baten izena ageriko zaizu.



1	2	3	4	5	6	7
---	---	---	---	---	---	---

		Igantziako biztanlea Egoskari		Hizlari Infin.. oratu		Pl., ondorioak Nafarroa- ko herria		Labore hautsa
						5		2
Barazki mota Aztarna ugariko leku	Utzi Garraio mota	Arabako Hitz grekoa						
Hizkera berezi				Azkar				
Hitza			4	Iparretarak				
		Hegaztien kaka Kausa partikula						
Zintzo		Likitsa						
H <sub>2</sub> O		Teiatupeko zurezko ohola						Libre
	Bizkaiko ibaia Zaren hori			Bokala		Errep. gorotza		
			3	Bat		Sor		
Jarri				Kontso- nantea		Sufrea		
Pertz kon- pntzaile				Har ezan!		Bi kontso- nante		
				Zein pertsanak				
		6		Iodoa	7			
Potasioa	Anai-erdi							1

# Hieroglifikoa



Udan eguraldi txarra egin al zuen?

## Aurreko asteko soluzioak

**ERANDIO**

**Gurutzegrama**

●	I	●	J	●	G	●				
A	Z	T	A	L	A	K				
●	D	●	E	●	A	U	K	E	R	A
M	I	N	G	O	S	T	A	S	U	N
●	G	A	I	Z	K	A	●	A	N	A
A	L	●	A	T	U	N	A	K	●	K
●	O	S	T	A	N	K	O	A	R	●
O	S	●	I	O	●	A	●	R	A	P
●	I	L	●	Z	I	M	U	R	T	U
F	A	●	E	T	X	O	L	A	●	L
●	K	A	L	A	●	N	E	K	E	A


EZKERESKUN: 1. Elebidunak. 2. Madarikatu. 3. Atabala. Ar. 4. Kana. Inora. 5. U. Alasa. II. 6. Moko. T. IKA. 7. Er. Riati. O. 8. Zeken. Zan. 9. Kati. Ataka. 10. Ok. Kapaz. U. GOTIK BEHERA: 1. Emakumezko. 2. Lata. Oreak. 3. Edamak. Ki. 4. Babuloreak. 5. Ira. A. In. A. 6. Dillita. 7. U. Kana. 1. 7a. 8. Na. O. I. 7a. 9. Alarikoak. 10. Kurzia. Nau.

### Kate hitzak

●	G	A	Z	I	●	A	Z	A	L	●
L	E	R	A	●	E	●	E	R	A	K
E	R	O	M	E	N	A	●	A	I	A
Z	O	●	A	M	E	R	I	K	A	R
O	●	O	R	E	A	●	R	A	●	E
●	O	R	I	A	●	Z	U	T	A	●
B	●	D	A	●	A	I	Z	U	●	B
I	Z	O	K	I	N	A	K	●	B	E
D	I	K	●	G	A	N	I	B	E	T
E	R	I	A	●	I	●	N	O	R	A
●	I	A	I	O	●	G	A	R	O	●

**Hieroglifikoa:**  
BATEN BAT LURPEAN

## ERROBIKO PIRAJAKO Komikia




# Antzerkiaren gaitzak ez ditu dirulaguntzen aspirinak sendatuko

**GAZTE** gazetatik ekin nion antzerkia idazteari eta noizbait pentsatu dut bide okerra hautatu nuela. Aspaldi honetan, ordea, eta gero eta sariago, ezezkoan nago, ez nembilela oker, alegia. Narratiba nahiago izan nuen antzerkia baino, erronka kilikagariagoa iruditzen baitzitzaidan ene ideiak elkarriketaren bidez soilik ezagutaraztea, nahiz eta komunikazio sistema horrek muga nabarmenak izan. Ordu ezkerotik, biziki zirikatu izan nau erronka hori onartzeak, muga horiek gainditzeko ahaleginak. Baina, aldi berean, dezepzio handiak ere jaso izan ditut. Izan ere, nire idazkiak eszenario batean antzezteko zailtasunak gaindiezinak izan baitira gehienetan.

*«Talentu handirik ez dut izango nik eginkizun bonetarako»*, behin baino gehiagotan izan dut horrelako burutaziorik. Alabaina, antzerki idazleok tarteka izan ohi ditugun bilere-tan frogatu ahal izan dut egile petoen eta trebatuenek ere arazo berbera dutela. Hots, eszenarioetako atearik oso gutxitan zabaltzen direla. Eta laster amaraunen euskarri besterik ez dira izango.

**SUBENTZIOEN** aldekoa ez naiz sekula izan. Eta kritika asko jaso behar izan dut ene jarrera honegatik. Ez dut, hala eta guztiz, nire iritzia aldatu eta lehengoari eusten diot: laguntza ofizialak direla medio administrazioa pozik edukitzea da antzerkigileen ardua nagusia. Subentzioak eskuratu ahal izateko, jakina. Horretan bihurtua zaigu gure sektore hau. Eta alboratu utziak ditu ikus-entzuleak,



**DAVID BARBERO**

Kazetaria, antzerki-idazlea

antzerkigileen ardua nagusia merezi dutenak.

Ohartzen naiz, nire antzerki-idazle talentua eskasa izanagatik ere, erabateko hondamendia ekonomikoa dela gaur egun antzerki obra bat eratu eta banatzea administrazioaren laguntzarik gabe. Salbuespenik ere bada, ohoretsuak eta guztizmeritudoak; baina, zoritxarrez, salbuespenak beti salbuespen. Iruditzen zait, bestalde, Kultura Sail eta Ministerioek (babesle ditugunek, ustez) ez dutela trebetasun eta eraginkortasun handirik erakutsi laguntzak banatzerakoan. Ene ustez (uste erratua seguruenik), klientelismoa eta konpromezu pertsonalak izan dira banaketarako irizpide nagusiak, antzerkiaren geroa sendotzeko helburu garbirik ez baita ageri.

**HONENBESTEZ**, eta darabilen (edo darabilgun) bidea ikusirik, antzerkiak etorkizun iluna duelakoan nago, subentzioak jaso ala ez jaso. Iraultza behar du gure esparru honek, bertan gabiltzan guztiok administrazioari eta geure buruei so egon beharrean beste eginkizun bati ekinez: antzerkiaren bitartez istorio onak plazaratu, ikus-entzulearen gustukoak izango direnak, jendearen arazoak eta kezak jorratuko dituztenak, gizartearen eraginik izango dutenak... eta sarrera dirua ordaintzen dutenei zeozer damaiotenak. Laburbilduz, beldur naiz antzerkiaren gaixotasuna oso larria ez ote den oraingon honetan. Eta subentzio tankerako aspirinak sarri samar hartuagatik ere ez zaiola sendatuko.

# LIBURU DENEDETAN SALGAI



Zure  
sukalde,  
bulego  
edo  
gelarako  
egutegia

Durangon salgai



# TXITXARDIN BELTXA



Oria Etorbidea, 12  
☎ 37 03 04  
20160 Lasarte-Oria